

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

LAUDIOKO UDAL EUSKALTEGIA

Laudioko Udal Euskaltegiko egonkortzeko lan-eskaintza publikoari eta iraupen luzeko egonkortzeko lan-eskaintza publikoari dagozkien hautaketa-prozesuen oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzea, tokiko gobernu-batzarraren 2022ko apirilaren 22ko erabakiaren bidez onartuak eta 2022ko maiatzaren 2ko 50. zenbakiko ALHAO-n argitaratuak, eta hautaketa-prozesuaren deialdia

Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko abenduaren 2an hartutako Erabakiaren bidez, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA. Aipatutako hautaketa-prozesuen oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzea, Laudioko Udal Euskaltegiaren egonkortze-lan-eskaintza publikoari eta iraupen luzeko egonkortze-lan-eskaintza publikoari dagozkienak. Oinarri horiek 2022ko apirilaren 22ko tokiko gobernu-batzarraren erabakiaren bidez onartu ziren, eta 2022ko maiatzaren 2ko 50. zenbakiko ALHAO-n argitaratuak. Oinarri horiek eranskin gisa erantsi dira:

Laudio, 2022ko abenduaren 7a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE

1. ERANSKINA

LAUDIOKO UDAL UDAL EUSKALTEGIKO KARRERAKO FUNTZIONARIOEN EGONKORTZERAKO ZEIN IRAUPEN LUZEKO EGONKORTZERAKO HAUTATZE-PROZESUAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRI OROKORRAK

Lehenengoa.— Aplikazio-eremua

1. Oinarri orokor hauek aplikatu beharko zaizkie Laudioko Udal Euskaltegiaren zerbitzura diharduten langile funtzionarioen plazak barne hartzen dituen 2022ko enplegu publikoaren eskaintzako prozesuei, zehazki, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen, Enplegu Publikoaren Behin-behinekotasuna murrizteko Neurri Urgenteei buruzkoaren 2. artikuluan jasotako egonkortze-prozesuei, baita abenduaren 28ko 20/2021 Legearen, Enplegu Publikoaren Behin-behinekotasuna murrizteko Neurri Urgenteei buruzkoaren seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan jasotako iraupen luzeko egonkortze-prozesuei ere.

2. Oinarri orokor hauek ez zaizkie aplikatuko Laudioko Udal Euskaltegiaren zerbitzura diharduten langile funtzionarioen plazen 2022ko enplegu publikoaren eskaintza barruko gainerako prozesuei.

Bigarrena.— Oinarrien objektua

1. Oinarri hauen objektua da xedatzea enplegu publikoaren eskaintza egikaritzeko Laudioko Udal Euskaltegiko funtzionarioen eskala eta azpieskaletan sartzeko hautatze-proba berezi eta salbuespenezkoen deialdi desberdinak eraenduko dituzten arau orokorrak.

Laudio Udalak onetsitako eta 2022ko maiatzaren 2ko ALHAO-n argitaratutako enplegu publikoaren eskaintzaren barruan sartuak daude abenduaren 28ko 20/2021 Legean, Enplegu Publikoan Behin-behinekotasuna murrizteko Neurri Urgenteei buruzkoan (aurrerantzean, 20/2021 Legea) jasotako egonkortze-prozesuak aplikatu behar dituzten plaza desberdinak.

Aipatutako legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrien arabera, onartu egiten da iraupen luzeko behin-behinekotasuna egonkortzeko ezohiko deialdia egitea, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren, Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onestekoaren 61.6 eta 61.7 artikuluei jarraikiz, betiere, lehiaketa-sistemaren bidez, eta 2016ko urtarrilaren 1az geroztik etenik gabe behin-behineko izaeraz okupatutako plazen kasurako. Behin baino ez da egingo ezohiko deialdi hori.

Halaber, 2. artikuluaekin bat, iraupen luzeko behin-behineko enplegua egonkortzeko deialdi berezi bat egitea baimendu da, lehiaketa-oposizio sistemaren bidez, aurrekontu-zuzkidura izanik 2020ko abenduaren 31 baino hiru urte lehenagotik behin-behinean eta etenik gabe okupatuak egon diren plazen kasurako.

Oinarri hauetan azaldutako hautatze-prozesuen deialdietan jasotako plazak okupatzen dituzten pertsonak edo pertsonak plaza horien hautatze-prozesuetan parte hartzen ez badute, ezingo dute plaza horien jabetza hartzeko hautagai izan, eta, gainera, ez dute eskubiderik izango 20/2021 Legearen 2.6 artikuluaaren arabera legokiekeen kalte-ordaina edo ordain ekonomikoa jasotzeko.

2. Oinarri hauen aplikazio orokorra gorabehera, kasuan kasuko deialdia arautuko duten oinarri espezifikoei jarraitu beharko zaie lehenetasunez hautatze-sistema, txanda, betekizun espezifikokoak, azterketa eta gainerako arau partikularrak zehazteari dagokienez.

3. Iragarritako plazetatik, oinarri espezifikoko bakoitzean zehaztutako plaza kopurua erreserbatuko da desgaitasuna duten pertsonen txandaren bidez hornitzeko. Txanda librean eskaintzen diren plazei gehituko zaizkie deialdi horretan sartutako baina kasuan kasuko probak gainditzeko gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik hutsik geratutako plazak, sartzeko deialdi independenteen kasuan salbu; azken kasu horretan, hutsik uzten diren plazak ez zaizkie inoiz gehituko sarbide libreko sistemaren bidez eskaintzen diren plazei.

4. Hornitzeko betekizun zehatzen bat duten lanpostuak ezingo dira inola ere hornitu betekizun hori bete ez duten pertsonekin.

5. Emakume eta gizonen arteko berdintasun-printzipioarekiko konpromisoa hartu egin da, zeinak Audio Udalaren zerbitzura lanean hasteko prozedura gidatzen baitu.

6. Hiru ataletan antolatu dira oinarri hauek:

I. Enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesuetarako (iraupen luzeko egonkortzea) zein enplegua egonkortzeko prozesu bereziei (egonkortzea) berdina aplikatu beharreko arauak.

II. Enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesuei aplikatu beharreko arau espezifikokoak (iraupen luzeko behin-behinekotasuna egonkortzea).

III. Enplegua egonkortzeko prozesu bereziei aplikatu beharreko arau espezifikokoak (egonkortzea).

I. ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUETARAKO (IRAUPEN LUZEKO EGONKORTZEA) ZEIN ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIEI (EGONKORTZEA) BERDIN APLIKATU BEHARREKO ARAUAK.

Hirugarrena.— Betekizunak

1. Hautaprotetan onartua izateko eta parte hartzeko, betekizun hauek bete beharko dituzte hautagai izan nahi duten pertsonak:

a) Zirkunstantzia hauetako bat gertatzea:

- Europar Batasuneko herritarra, Europar Batasuneko herritar baten ezkontidea (zuzenbidez banandua ez badago) edo Europar Batasuneko herritar baten edo haren ezkontidearen semea edo alaba izatea (zuzenbide banandua ez badago), hogeita bat urtetik beherakoak edo nagusiagoak izanda mendekoak badira, hori guztia, urriaren 30eko Legegintzako Errege Dekretuaren, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu batekina onestekoaren 57. artikularekin bat.

- Langileen zirkulazio librea ahalbidetzen duten, Europar Batasunak izenpetu dituen eta Espainiak berretsi dituen nazioarteko itunen aplikazio-esparruaren barruan egotea.

b) Hamasei urte beteak izatea eta, hala dagokionean, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adinetik gorakoa ez izatea.

c) Behar besteko gaitasun funtzionala izatea lanpostuari dagozkion atazak betetzeko.

d) Diziplinako espediente bidez zerbitzutik kenduta ez egotea, herri administrazioei edo konstituzio-organoei nahiz autonomia-erkidegoetako estatutu-organoei dagokienez, eta ebazpen judizialaren arabera erabateko desgaituntzarik edo desgaituntza berezirik ez izatea, ez enplegu edo kargu publikoak betetzeko, ezta funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko ere. Beste estatu bateko herritarra bada, desgaitua edo horren pareko egoera batean ez egotea, eta bere estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen diziplinazko zehapenik edo horren parekorik ez izatea.

e) Instantziak aurkezteko epea bukatzen den egunean eskatzen den titulazioaren jabe izatea edo hori eskuratzeko baldintzetan egotea, eta oinari espezifikoen xedatzen diren gainerako betekizunak beteak edo betetzeko moduan izatea. Atzerrian lortutako titulazioak dauzkaten hautagaiek beharrezko baliozkotzea egina dutela edo, hala badagokio, homologazioa egiaztatu ahal izateko kredentziala dutela egiaztatu beharko dute.

f) Indarrean dagoen araudiarekin bat, ezintasun- edo bateraezintasun-kausarik ez izatea.

g) Ez izatea Laudio Udaleko karrerako funtzionario deialdiaren barruan iragarritako ezein plazatan.

h) Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoei jarraikiz hautatze-prozesu bakoitzerako ezartzen diren bestelako betekizun espezifikoak.

2. Hautagaiek eskaerak aurkezteko epea agortzean beteta izan beharko dituzte oinarri hauetan xedatutako betekizun guztiak eta betekizun horiek beteta jarraitu beharko dute hautatze-prozesuak irauten duen bitartean eta karrerako funtzionario gisa kontratatu edo plazaren jabetza hartu arte, oinarri espezifikoen xedatutako salbuespenak salbuespen.

3. Desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kupoak: Desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako plazen deialdira aurkezten direnek ehuneko hogeita hamahiruko desgaitasun gradua aitortua izan beharko dute gutxienez, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean. Eskumena duen administrazio-organismoak (foru aldundietako, autonomia erkidegoetako edo IMSERSO-ko arlo eskumendunak) jaulkitako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da desgaitasun gradua, eskaerak aurkezteko epearen barruan.

4. Desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako plazetara euren burua aurkezteko betekizunak betetzen dituzten pertsonak desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kupoaren bidez sartu nahi baldin badute hautatze-prozesuan, aukera hori markatu beharko dute parte hartzeko eskaeraren inprimakian. Gainerako hautagaiek aukeratzen duten sistemaren txanda orokorrean parte hartuko dute.

Laugarrena.— Desgaitasuna duten pertsonentzako egokitzapenak

1. Hautatze-prozesuetan gainerako izangaiekiko aukera-berdintasunean parte hartzen dutela ziurtatzeko, probak egiteko zentzuzkoak diren denbora- eta baliabide-egokitzapenak egingo zaizkie hala eskatzen duten eta desgaitasuna duten pertsonen, betiere, desgaitasunak zerikusi zuzena duenean egin beharreko probarekin.

2. Dagokion epaimahai kalifikatzaileak ebatziko ditu egokitzapen-eskaerak eta hautaprobetan egin beharreko zentzuzko denbora- eta baliabide-egokitzapenak, desgaitasuna duten pertsonak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean.

3. Haurdun edo edoskialdian dauden izangaiek ere egokitzapenak eskatu ahalko dituzte, horren berri emanda kalifikazio-epaimahaiari.

Bosgarrena.— Instantziak

1. Epea

Kasuan kasuko oinarri espezifikoetan zehaztutako plazak hornitzeko hautatze-prozesuetan parte hartu nahi duten pertsonak 20 eguneko epea izango dute eskaerak aurkezteko deialdiaren laburpea Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera zenbatuta.

2. Eskaeraren betekizunak

Izangaiek eskaera-inprimakiaren atal guztiak bete beharko dituzte eta adierazi beharko dute oinarri orokor hauetan nahiz kasuan kasuko oinarri espezifikoetan zehaztutako betekizun guztiak betetzen dituztela.

Horretarako, hau adierazi beharko dute izangaiek instantzia bakoitzean dagokion atalean:

a) Eskatutako datu pertsonalak.

b) Desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kupoaren bidez parte hartzeko aukera, betiere, oinarri espezifikoetan zehaztutakoarekin bat, izangaiek horretarako betekizunak betetzen baditu eta hala nahi badu. Aukera hori baliatzen duten hautagaiek ezingo dute parte hartu kasuan kasuko deialdiaren barruko prozesu orokorretan.

c) Zer plazataraz aurkeztu nahi den.

d) Oposizio faseko ariketak zer hizkuntza ofizialetan egin nahi diren; euskaraz ala gaztelaniaz.

e) Desgaitasunen bat duten pertsonak horren berri eman beharko dute eskaeretan, eta, hala dagokionean, hautaprobak egiteko beharrezkoak eta zentzuzkoak diren denbora- edota baldintza-egokitzapenak. Halaber, kalifikazio-epaimahaiak eskatutakoa egokia den ala ez erabakitze aldera, desgaitasun graduak zehazteko organo tekniko eskumendunak emandako mediku irizpen teknikoa erantsi beharko diote eskaerari denbora-egokitzapen horien onuradunek, eta modu frogagarrian egiaztatuta beharko dituzte aitortu zaien desgaitasun graduaren oinarri diren urritasun iraunkorrak.

f) Betekizunak eta merituak. Erantzukizunpeko eskaeran/adierazpenean adierazi beharko da deialdiaren oinarrietan zehaztutako betekizun guztiak betetzen diren, hala orokorrak nola espezifikoak.

Halaber, eskaerak aurkezteko epearen barruan, erantzukizunpeko eskaeran/adierazpenean alegatu beharko dira merituak, horiek behar bezala zerrendatuta eta identifikatuta.

Oinarri espezifikoaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den eguna izango da alegatutako merituak eta betekizunak lortuak edo beteak edukitzeko erreferentzia-data, betiere, oinarri espezifikoetan bertan beste eperik zehazten ez bada.

g) Oinarri espezifikoetan adierazitako beste alderdiak.

3. Eskaerak aurkezteko lekua

Hautatze-prozesuetan parte hartu nahi duten pertsonak prozesu bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztutakoari jarraikiz aurkeztu beharko dituzte eskaerak.

Seigarrena.— Izangaiek onartzea

1. Eskaerak aurkezteko epea agortu denean, alkate-udalburuaren dekretu bidez onetsiko da onartutako eta baztertutako pertsonen zerrenda; hala dagokionean, baztertzeko arrazoiak emango dira eta eskaeretan antzemandako akatsak edo omisioak zuzentzeko

aukera emango da. Halaber, zerrenda horretan adieraziko da Euskal Autonomia Erkidegoko zer hizkuntza ofizial aukeratu den ariketak egiteko. Aipatutako ebazpena ALHAO-n argitaratuko da.

2. Baztertutako pertsonen eta argitaratutako datuetan akatsen bat antzematen duten pertsonen hamar laneguneko epea izango dute behin behineko zerrendak ALHAO-n argitaratzen diren egunetik aurrera erreklamazioak aurkezteko, eta, hala dagokionean, egindako akatsak zuzendu daitezela eskatzeko. Horren ostean, alkate-udalburuak beste ebazpen bat emango du onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onesteko, eta ebazpen hori ALHAO-n argitaratuko da, behin behineko zerrendan jasotako informazio berberarekin. Ez bada erreklamaziorik aurkezten, behin behineko zerrenda behin betiko bihurtu dela ulertuko da.

3. Ezingo da zuzendu eskaera epez kanpo aurkeztu izana, ezta merituak egiaztatzeko dokumentazioan antzemandako akatsak edo omisioak ere.

4. Onartua izateak ez du esan nahi prozesu izapidetzen den bitartean baztertua ez izateko eskubidea lortu denik, alde batera utzita proba guztiak egin diren ala ez. Izan ere, aurkeztutako datuak eta dokumentazioa aztertzean antzematen bada ez direla bete prozesuan onartuak izateko eta parte hartzeko betekizun guztiak, hasiera batean onartutako izangaia baztertu ahalko dira. Kasu horretan, epaimahaiak dagokion bazterte-proposamena emango du, interesdunari entzun ostean, alkate-udalburuak dagokion ebazpena eman dezan.

5. Hautaprobak egiten diren egunean oraindik ez badira ebatzi onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrendak onesteko dekretuaren bidez baztertu diren izangaiek aurkeztutako errekursoak, ukitutako izangaiek hautaprobak egin ahalko dituzte, baina hautaprobek ez dute balio izango errekurso horiek ezesten badira.

6. Edonola ere, izangaiei hautatze-prozesuan parte hartzeko eskatzen zaizkien betekizunak bete izana aitortu ahal izateko, oinarrietan xedatutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute, eta, beraz, dokumentuen bidez betekizunak betetzen direla egiaztatu ezean, interesdunek galdu egingo dituzte hautatze-prozesuan parte hartzetik eratorritako eskubide guztiak.

Zazpigarrena.— Kalifikazio-epaimahaiak

1. Alkate-udalburuaren dekretu bidez zehaztuko da hautatze-epaimahaiaren kideen izendapena, epaimahaia eratzeko lekua, eguna eta ordua nahiz, hala dagokionean, lehenengo ariketa egiteko lekua, eguna eta ordua ere. Hori guztia ALHAO-n argitaratuko da.

2. Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bategina onestekoaren 60. artikuluan adierazitakoa aplikatuko da epaimahaiaren osakerari dagokionez. Horiek horrela, epaimahaiaburu batek eta lau epaimahaikidek osatuko dute epaimahaia, eta epaimahaikide horietako bat idazkari izendatuko da. Epaimahaiaren osakerari dagokionez, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoaren 31.2 artikuluan jasotako espezialitate printzipioa bermatuko da, baita otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, Emakume eta Gizonen arteko berdintasunari buruzkoaren 20.4 artikuluan jasotako ordezkari itzazko printzipioa ere.

3. Epaimahaiak aholkulari lanak egiteko pertsonen laguntza izatea erabaki ahalko du, haien espezialitate teknikoak erabili ditzaten hautatze-prozesuetako proba batzuen edo guztien ebaluazioan aholkuak emateko.

4. Epaimahaiko kide direnek ezingo dute esku hartu 40/2015 Legearen 23 eta 24. artikuluetan jasotako kausaren bat dagoenean. Halaber, zirkunstantzia horietakoren bat jazotzen denean, pertsona izangaiek errekusazioa eskatu ahaliko dute alkate-udalburuaren aurrean.

5. Urriaren 1eko 40/2015 Legearen, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoaren 15. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutako arauak bete beharko ditu epaimahaiak bere jardunean. Nolanahi ere, epaimahaikideak epaimahaiburuaren aginduz batzartuko dira, aldezturik idazkariak batzarrerako deia eginda. Batzar hori hautaprobak hasi baino lehenago egin behar da, behar adina denborarekin. Batzarra baliozkoa izan dadin, nahitaezkoa da batzarrean izatea epaimahaiburua eta idazkaria (hala dagokionean, haien ordezkoiak) eta gutxienez epaimahaikideen erdia.

Erabakiak batzarrean daudenen botoen gehiengoarekin hartuko dira. Epaimahaikide guztiak hitza eta botoa izango dute. Berdinketa egotekotan, epaimahaiburuaren kalitatezko botoaren bidez hautsiko da.

6. Epaimahaiburuaren eta haren ordezkariaren postua bete gabe geratzen denean, biak ez daudenean, gaixo daudenean edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen denean, epaimahaikideen artean lanpostu mailako osagaririk handiena, antzinasunik handiena edota adinik altuena duen epaimahaikideak ordeztuko ditu, hurrenkera horretan. Idazkariaren postua eta haren ordezkoiarena hutsik daudenean, haiek ez daudenean, gaixo daudenean edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen denean, epaimahaiko beste edozein kidek ordeztuko ditu, epaimahaiak hori gehiengoaz aukeratu eta gero.

7. Kalifikazio-epaimahaia izango da deialdiaren oinarrien interpretazioari dagokionez sortzen diren zalantzak eta auziak ebazteko, aplikatu beharreko arau eta legeetan edota oinarrietan jaso ez diren alderdiak argitzea nahiz hautatze-prozesua era egokian bideratzen dela zaintzeko gaitasuna duen organo bakarra.

8. Epaimahaiak prozesuaren edozein unetan errekeritu ahaliko du izangaien identitatea egiaztatzea.

9. Epaimahaiak hautatze-prozesuaren edozein unetan eskatu ahaliko du deialdian zehaztutako betekizunak egiaztatzea; horretarako, 10 laneguneko epea emango du eta izangaietakoren batek betekizunak egiaztatzen ez baditu, edo epe horretan ez badu egiaztatzen, baztertua proposatuko zaio alkate-udalburuari, interesdunari entzun ostean eta baztertzeko arrazoiak azalduta.

10. Epaimahaiek beharrezko neurriak hartu behar dituzte oposizio-faseko idatzizko ariketen edukien konfidentziasuna bermatzeko eta ariketak zuzentzen direnean izangaien identitatea gordetzen saiatzeko. Ariketak ez direnean modu mekanizatuan zuzentzen, epaimahaiek baztertu egingo dituzte ariketetan haien identitatea jakiteko aukera ematen duten markak edota ikurrak ipini dituzten izangaiak.

11. Epaimahaiak bermatu egingo du izangaiek hautatze-prozesuko euren espedientea ezagutzeko duten eskubidea erabili ahal dutela.

12. Hilabeteko epea egongo da epaimahaien ebazpenen kontrako berraztertze-errekurtsoa aurkezteko alkate-udalburuaren aurrean, delako ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

13. Eusko Jaurlaritzak otsailaren 2an emandako 16/1993 Dekretuan, zerbitzu-arrazoiengatik kalte-ordainei buruzkoan jasotako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea emango dute epaimahaietan parte hartzeko bertaratze eta kolaborazioek.

Zortzigarrena.— Iruzurrezko jokabideen eta lehia desleialaren tratamendua

1. Epaimahaiak gaitasuna izango du hautatze-prozesutik baztertzeko edozein motatako iruzurra egiten duten pertsonak, edozein probaren funtzionamendu normala eragozten dutenak edota berdintasun-, meritu- eta gaitasun-printzipioen arabera lehia desleiala eragiten dutenak. Epaimahaiburuak berehala emango dizkio aditzera jarduketa horiek Audio Udaleko Pertsonen eta Lan Harremanen Zerbitzuari, eta, halaber, jarduketak jaso egingo ditu kasuan kasuko saioaren aktan.

2. Izangaiek ezingo dute kalifikazio epaimahaiko kideekin indibidualki komunikatu hautatze-prozesuarekin erlazionatutako alderdiak jorratzeko, ez pertsonalki, ezta hirugarren pertsonen bitartez ere. Hautatze-prozesuaren inguruko gaiak idatziz planteatuko dizkiote kalifikazio epaimahaiari, zeinak, kide anitzeko organoa izaki, dagokiona erabakiko baitu.

Bederatzigarrena.— Dokumentuak aurkeztea

1. Prozesuaren emaitza jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta, 15 laneguneko epea emango da hautatutako pertsonak jarraian ageri diren dokumentuak aurkez ditzaten prozesu bakoitzaren oinarri espezifikoeetan zehaztutako tokian eta baliabideak erabiliz:

- a) Nortasun agiri nazionalaren fotokopia konpultsatua.
- b) Audio Udalak jakinarazpen bat bidaliko die izangai atzerritarrei, euren egoeraren arabera nahitaez aurkeztu behar duten dokumentazio zehatza adierazteko.
- c) Eskala, azpieskala eta klase bakoitzean sartzeko eskatzen diren eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoeetan adierazten diren tituluen fotokopia konpultsatua.
- d) Zinpeko adierazpena, zeinetan adieraziko den izangaia ez dagoela funtzio publikoak betetzeko gaitasungabetua, ez dela diziplina-espedita bidez baztertu administrazio publikoetan zerbitzuak emateko, eta ez duela abenduaren 26ko 53/1984 Legean, Administrazio Publikoen Zerbitzura diharduten Langileen Bateriaezintasunei buruzkoan jasotako bateraezintasunik edo ezintasunik.
- e) Nazionalitate espainiarra ez duten izangaiek zinpeko adierazpen bat aurkeztuta adierazi beharko dute haien estatuan ez zaiela ezarri funtzio publikoan sartzeko eragozten dien diziplina zigorrik edo zigor penalik.
- f) Halaber, oinarri hauekin eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoekin bat, egiaztatu egin beharko dute ez dutela dagozkien eginkizunak betetzea eragozten dien urritasun edo akats fisiko edo mentalik. Horretarako, Audio Udalak zehaztutako zerbitzuetan bideratutako diren osasun azterketak eta probak igaro beharko dituzte. Horrez gain, desgaitasuna duten izangaiek lortu nahi dituzten lanpostuen berezko eginkizunak betetzeko gaitasun-ziurtagiria eskuratu beharko dute. Audio Udalak zehazten dituen osasun zerbitzuek emango dituzte ziurtagiri horiek.
- g) Kasuan kasuko prozesuaren oinarri espezifikoeetan zehaztutako betekizun espezifikoen dokumentu bidezko justifikazioa.
- h) Oinarri hauetako aurreko puntuetan aipatutako egiaztagiri eta ziurtagiriak jatorrizko dokumentuak edo kopia konpultsatuak izan beharko dira, eta, horiek balio izateko, informazio hau eduki beharko dute: data, eta dokumentu konpultsatu dituenaren izen-abizenak, NAN zenbakia eta izenpe irakurgarria.
- i) Adierazitako dokumentuak aurkezteko ezintasuna behar bezala justifikatzen den kasuetan, izangaiek aukera izango dute Zuzenbidean onargarria den edozein probaren bidez deialdian zehaztutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko.

2. Nahitaezko kasuak alde batera utzita, dokumentazioa adierazitako epearen barruan aurkezten ez dutenak, dokumentazioa aztertu ostean oinarrietan zehaztutako betekizunetakoren bat betetzen ez dutenak edota eginkizunak betetzeko beharrezkoa den gaitasun funtzionala ez dutenak ezingo dira karrerako funtzionario izendatu, eta, beraz, haien jarduketa oro baliogabetu egingo da, baina, hala eta guztiz ere, instantzian datu faltsuak adierazteagatik eduki litzaketen erantzukizunak eskatu ahalko zaizkie. Kasu horretan, hautatze-prozesuaren puntuazioaren hurrenkerari jarraituta ordeztuko dira, betiere, ordezkoak aipatutako dokumentuak aurkeztu ostean.

Hamargarrena.— Praktika- eta prestakuntza-aldia

1. Deialdi espezifikotan zehazten bada, izangaiek praktika- eta prestakuntza-aldi bat egin beharko dute, gehienez ere, urtebetekoa. Kasu horretan, Laudio Udalak praktiketako funtzionario izendatuko ditu epaimahaiak proposatutako izangaiek, oinarri hauetan xedatutakoarekin bat.

2. Praktika- eta prestakuntza-aldia hautatze-prozesuaren fase gisa ezarrita duten plaza bat baino gehiagorako hautatu diren izangaiek plaza horietako bakarra aukeratu beharko dute praktika- eta prestakuntza-aldia hasi baino lehenago.

3. Praktiketako funtzionario izendatzeko aurreikusi den egunean hautatutako pertsona aldi baterako ezintasun egoeran badago edo amatasun edo aitatasun baimena erabiltzen ari bada, izendapena atzeratu egingo da hautatutako pertsonak sendagiria jaso arte edo aitatasun edo amatasun baimena amaitu arte.

4. Praktika- eta prestakuntza aldia ebaluatu eta kalifikatu egingo da, aldagai hauei erreparatuta:

- Atazak eta betebeharrak betetzea.
- Lanaren kalitatea.
- Ikasketa-jokabideak.
- Ekimena.
- Erantzukizuna eta egokitzapena.
- Lankidetzajokabideak.
- Herritarrekiko eta lankideekiko harremanak.

5. Ebaluazio batzorde bat eratuko da praktika- eta prestakuntza-aldia ebaluatzeko. Batzordeburu batek eta bi batzordekidek osatuko dute batzordea, zeintzuek funtzionario izaera izango baitute. Zehazki, honela osatuko da ebaluazio batzordea:

- Batzordeburua: Laudioko Udal Euskaltegiko zuzendaria, eta hura karrerako funtzionario ez bada, haren eskuordetza hartzen duen Laudioko Udal Euskaltegiko karrerako funtzionarioa.

- Bi batzordekide, zeintzuek Laudio Udalaren edo Laudioko Udal Euskaltegiaren zerbitzura diharduten karrerako funtzionario izan beharko baitute. Bi batzordekideek eginkizunak eskuordetu ahalko dizkiete Udalean diharduten karrerako beste funtzionarioei. Batzordekideetako batek idazkari lanak egingo ditu.

Ebaluazio batzordearen eratzeari dagokionez, gaikuntza, konpetentzia eta prestakuntza egokia duten emakumezko eta gizonezkoen ordezkaritza orekatua bermatu beharko da. Kalifikazio-epaimahaietarako zehaztu diren funtzionamendu-arau berberak bete beharko ditu ebaluazio-batzordeak, eta "Gai" edo "Ez gai" kalifikazioa emanda ebaluatuko du praktika- eta prestakuntza-aldia.

6. Praktika-aldia bukatzean, lanpostua dagoen unitate administratiboaren arduradunak praktika-aldiaren ebaluazioa egingo du eta ebaluazio horren emaitza ebaluazio batzordeari jakinaraziko zaio, eta, emaitza negatiboa bada, baita interesdunari ere. Ebaluazio batzordeak dagokion kalifikazio-epaimahaiari helaraziko dio praktika- eta prestakuntza-aldia gainditu duten pertsonen zerrenda. Kalifikazio-epaimahaiak alkate-udalburuari igorriko dio karrerako funtzionarioak izendatzeko proposamena.

7. Praktika- eta prestakuntza-aldia gainditzen ez duten izangaiek karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galduko dituzte alkate-udalburuaren dekretu arrazoituen bidez.

Hamaikagarrena.— Izendapena eta jabetza hartzea

1. Kalifikazio-epaimahaiak aurreko oinarrietan xedatutakoa bete duten pertsona hautatuen zerrenda prestatuko du, bakoitzak eskuratu duen helburu-lanpostua adierazita, eta alkate-udalburuari igorriko dio Laudioko Udal Euskaltegiko karrerako funtzionarioak izendatzeko proposamen gisa. Behin betiko zerrenda hori udal webgunean eta iragarkien taulan argitaratuko da.

2. Kalifikazio-epaimahaiak eskatutako betekizunak hemen azaldutako moduan betetzen dituztela egiaztatuta pertsona hautatuen behin betiko zerrendaren bidez egindako proposamena jasotakoan, zerrenda hori osatzen duten pertsonak Laudioko Udal Euskaltegiko eskala, azpieskala eta klaseetako karrerako funtzionario izendatuko ditu alkate-udalburuak dekretu bidez. Izendapenak ALHAO-n argitaratuko dira.

3. Izendatutako pertsonak hilabeteko epea izango dute jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik aurrera haien lanpostuaz jabetzeko karrerako funtzionario gisa. Epe hori hamabost egun luzatu ahalko da izendatu behar den pertsonak hala eskatzen badu eta horretarako arrazoi justifikatuak badaude.

4. Ezinbesteko kasuak alde batera utzita, epe horretan lanpostuaren jabetza hartzen ez dutenek galdu egingo dituzte Laudioko Udal Euskaltegiko karrerako funtzionarioaren izaera hartzeari dagokionez deialditik eratorritzen diren eskubideak. Kasu horietan, kalifikazio-epaimahaiak izendapen osagarrien proposamena helaraziko dio alkate-udalburuari, gainditu duten pertsonen behin betiko zerrendako puntuazioen hurrenkerari jarraikiz. Horretarako, aipatutako zirkunstantziaren ondorioz hutsik geratu diren plaza kopuruaren pareko izangai kopurua hautatuko da. Izendatzea proposatzen den pertsonen zerrenda horretan, bakoitzari dagokion lanpostua jasoko da eta udaletxeko iragarkien taulan nahiz udal webgunean argitaratuko da.

Hamabigarrena.— Deialdia aurkaratzea

Deialdia, horren oinarriak eta horietatik nahiz epaimahaien jardunetik eratorritako administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahalko dituzte interesdunek, betiere, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan aurreikusitako kasuetan, moduetan eta epeetan.

Hamahirugarrena.— Izaera pertsonaleko datuen babesa

Hautatze-prozesuetan jasotako edo sortutako datu pertsonalak mota horretako datuak babesteari dagokionez indarrean dagoen araudiari jarraikiz tratatuko dira.

Eskaeren bidez emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da eta hautatze-prozesuak kudeatzeko, aldi baterako kontratazioak egiteko sortzen den lan-poltsa kudeatzeko eta bitarteko funtzionarioak izendatzeko baino ez da erabiliko.

Iragarritako plazak eskuratu nahi dituzten pertsonak esanbidezko baimena eman beharko dute segurtasun—neurriak behar dituzten eta hautatze-prozesuan beharrezkoak diren haien datuak trata daitezzen.

Hautatze-prozesuetan emandako datuak beste administrazio batzuei eman ahal zaizkie, hala eskatzen badute. Haien titulartasuneko datu pertsonalak beste administrazioei lagatzea nahi duten izangaiek horretarako baimena eman beharko dute, esanbidez.

Baliozkotzat joko dira eskaeretan adierazitako helbideak, telefono-zenbakiak eta helbide elektronikoak. Eskaera egiten duenaren erantzukizun eksklusiboa izango dira datu horiek adieraztean egin litezkeen akatsak eta datuei dagokienez gertatutako edozein aldaketa kalifikazio-epaimahaiari jakinaraztea.

Jakinarazpenen ondoreetarako, helbidetzat hartuko da instantzian adierazitakoa, betiere, instantzia aurkeztu ostean deialdia egin duen agintaritzari ez bazaio esanbidez eta modu frogagarrian adierazten beste helbide bat.

II. ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUEI APLIKATU BEHARREKO ARAU ESPEZIFIKOAK (IRAUPEN LUZEKO BEHIN-BEHINEKOTASUNA EGONKORTZEA).

Hamalaugarrena. — Hautatze-prozedura

1. Lehiaketa sistemaren bidez egingo da hautaketa, deialdiaren oinarri espezifikoetan xedatutakoarekin bat.

2. Hautatze-prozesuetako beste fase gisa zehaztu ahalko da prestakuntza-ikastaroak gainditzeko beharra edota praktikaldiak gainditzeko beharra, oinarri espezifikoetan zehaztutakoari jarraikiz.

3. Oinarri espezifikoetan prozesu bakoitzerako jaso diren espezialitateak gorabehera, lehiaketa-fase bakarra izango du prozedurak eta arau hauek bete beharko dira lehiaketa-fase horretan:

a) Izangaiek alegatutako eta egiaztatutako merituak balioetsiko dira fase honetan, meritu bakoitzari dagozkion puntuak emanda kasuan kasuko deialdian eta oinarri espezifikoetan jasotako baremoen arabera.

b) Hala dagokionean, jatorrizko dokumentuak edo kopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira merituak egiaztatzeko, eta, dokumentu horiek baliozkoak izan daitezzen, informazio hau eduki beharko dute: data, eta dokumentuak konpultsatu dituen pertsonaren izen-abizenak, NAN zenbakia eta izenpe irakurgarria. Baldintza horiek bete ezean, merituak ez dira egiaztatutzat joko.

c) Ez dira kontuan hartuko instantziak aurkezteko epea agortzean behar bezala justifikatu ez diren merituak, soilik eskatzailearen adierazpenetan oinarritutakoak, ezta dagokion baremoaren arabera kasuan kasuko merituak balioesteko beharrezkoak diren datuak ez dauzkaten dokumentuak ere.

d) Oinarri espezifikoaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den eguna izango da alegatutako merituak eta betekizunak lortuak edo beteak edukitzeko erreferentzia-data, betiere, oinarri espezifikoetan bertan beste eperik zehazten ez bada.

e) Audio Udalean eta haren organismo autonomoetan emandako zerbitzuak alegatu egin beharko dira, baina interesdunek ez dituzte egiaztatu beharko. Audio Udalak balioetsiko ditu zerbitzuengatik meritu horiek, ofizioz. Gainerako administrazio publikoek horretarako dituzten eredia erabilia egiaztatuko dira administrazio horietan emandako zerbitzuen denbora. Nolanahi ere, lan egindako aldiak xehakatu beharko dira, aldi bakoitzean izandako kidegoa edo eskala, azpieskala eta klase edo kategoria zehaztuta. Audio Udalez edo haren organismo autonomoek bestelako administrazioetan sailkapen profesionaleko talde edo azpitalde desberdinei edota kidego edo eskala desberdinei irekitako plazetan emandako zerbitzuak alegatu eta egiaztatu nahi direnean, eta plazen irekitasun hori ez bada jaso emandako zerbitzuen ziurtagirian, hori justifikatzeko dokumentua aurkeztu beharko da. Euskal Autonomia Erkidegoko toki eta foru administrazioan emandako zerbitzuak balioekidetzat joko dira, uztailearen 30eko 208/1990 Dekretuan, Euskal Administrazio Publikoetako Kidego eta Eskalen arteko Baliokidetasunak zehaztekoan xedatutakoaren arabera, alde batera utzita azaroaren 11ko 7/2021 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Kidegoei eta Eskalei buruzkoan xedatutakoaren arabera legezkiokkeen eguneratzeak.

f) Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoen hala aurreikusten denean, eta zehazten diren baremoekin bat, deialdien arabera eskatzen den ezagutza informatikoen maila egiaztatzea meritu gisa balioetsiko da, Informazioaren Gizarterako Euskadi Planak KZ Gunea zentro publikoetan eskuragarri dituen moduluak lortzeko proba gaudituta. IT Txartelaren egiaztapena eginda egiaztatuko da modulu horiek gaudituta izana. Aplikazio baten azken bertsioaren egiaztagiriek aurreko bertsioenak indargabetuko dituzte. Horrez gain, organismo ofizialek edo ikastegi homologatuek jaulkitako ziurtagirien bidez ere egiaztatu ahalko dira ezagutza informatikoak. Modulu beraren oinarriko bertsioa eta bertsio aurreratua egiaztatzen badira, azken hori baino ez da balioetsiko.

g) Aurreko puntuetan aipatutako dokumentazioa prozesu bakoitzaren oinarri espezifikoen zehaztutako moduan aurkeztuko da.

4. Hizkuntza-eskakizunen ondoretarako, aplikatzekoak izango dira apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan (1997ko apirilaren 17ko Euskal Herri Aldizkari Ofiziala), urriaren 6ko 263/1998 Dekretuan (1998ko urriaren 23ko Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala) nahiz balioespina egiteko unean indarrean dauden gainerako lege eta arauetan xedatutakoak.

a) Edozein plaza eskuratzeko, nahitaezko betekizuna izango da kasuan kasuko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea, eta plazarako eskatzen direnak baino hizkuntza-eskakizun altuagoak meritu gisa hartu ahalko dira kontuan. Deialdi bakoitzaren oinarrietan adieraziko da egiaztatutako hizkuntza-eskakizun bakoitzari dagokion portzentajea.

b) Audio Udalean edo haren organismo autonomoetan hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatua dutenek ez dute berriz egiaztatu beharko parte hartzen duten hautatze-prozesuaren barruan. Gainera, hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatua duten eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatu gisa jasoak dauden izangaiek ez dute egiaztatu beharko; hortaz, parte-hartzaileak esanbidezko baimena emango dio Audio Udalari aipatutako erregistroan beharrezko datuak egiaztatzeko.

Hamalagarrena. — Prozesuaren emaitza

1. Lehiaketa-fasean lortutako puntuen baturak zehaztuko du sailkapenaren ordena, kasuan kasuko oinarri espezifikoen zehazten denarekin bat.

2. Berdinketarik badago, emakumezkoen emango zaie lehenetasuna emakumezkoen proportzioa ehuneko berrogeitik behera dagoen eskala, azpieskala eta klaseetan, betiere, beste izangaiek neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten eta sexuaren ondoriozko diskriminaziorik eragiten ez duten arrazoirik ez badute argudiatzen, esaterako, enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboetakoak izatea.

3. Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, irizpide hauek aplikatuko dira berdinketa apurtzeko lehenetasunen hurrenkerak zehazteko, hemen zerrendatu diren ordenan:

a) Lehenik, iragarritako plazaren eskala, azpieskala edota kategoria bereko lanpostuetan Laudioko Udal Euskaltegian lanegun gehien eman dituen hautagaiaren alde egingo da.

b) Bigarrenik, Laudioko Udal Euskaltegian zerbitzu denbora luzeena duen hautagaiaren alde egingo da.

c) Hirugarrenik, beste administrazio publikoetan zerbitzu denbora luzeena duen hautagaiaren alde egingo da.

4. Hautatze-prozesua bukatutakoan, epaimahaiak udaletxeko iragarkien taulan eta udal-webgunean argitaratuko ditu ariketak gainditu dituzten pertsonen emandako puntuazioak, puntuazio handiena lortu duenetik txikiena lortu duenera ordenatuta, eta esanbidez adierazita hautatu diren pertsonak; pertsona hautatuaren kopuruak ezingo du gainditu deitutako plazen kopurua, deialdian bertan hala aurreikusi ez bada.

5. Behin betiko kalifikazio horiek argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera, interesdunek hamar laneguneko epea izango dute lehiaketa-faseari eta, hala badagokio, berdinketak hausteko irizpideei buruz egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko kalifikazio-epaimahaiaren aurrean.

6. Erreklamazioak aurkezteko epea agortutakoan eta aurkeztu direnak ebatzi ostean, epaimahai bakoitzak agindua emango du hautatutako pertsonen eta eskaintako postuen zerrendak argitaratzeko, eta hamar laneguneko epea emango du izangaiek postu horien lehenetasun-hurrenkera adierazi dezaten. Helburuen lehenetasun-hurrenkera garaiz eta behar bezala adierazi ezean, hurrenkera horretako azken lekura igaroko da.

7. Hamar laneguneko epe hori agortutakoan, kasuan kasuko epaimahaiak praktiketako funtzionarioaren izendapen-proposamena egingo du, hautatutako izangai bakoitzari dagokion helburu-lanpostua adierazita.

8. Lanpostuan hastea errazte aldera, parte hartzeko edozein sisteman desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako kupoaren bidez hautatutako izangaiek dagokion kalifikazio-epaimahaiari eskatu ahalko diote plazak hautatzeko lehenetasun-hurrenkera aldatzeko mendekotasun pertsonalari lotutako arrazoiengatik, joan-etorrietarako arazoak izateagatik eta antzeko arrazoiengatik eta arrazoi horiek behar bezala egiaztatu beharko dira. Behar bezala justifikatzen denean erabakiko du epaimahaiak aldaketa hori egitea, eta desgaitasuna duen pertsonak lanpostua hartzen duela ahalbidetzeko ahalik eta aldaketarik txikiena egin beharko du lehenetasun-hurrenkeran.

Hamaseigarrena.— Aldi baterako enplegurako poltsak

Lehiaketa bidezko salbuespenezko egonkortze-prozesu hauetatik ez da lan-poltsarik eratorriko.

III. ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIEI APLIKATU BEHARREKO ARAU ESPEZIFIKOAK (EGONKORTZEA).

Hamazazpigarrena.— Hautatze-prozedura

1. Oposizio-lehiaketaren sistemaren bidez egingo da hautaketa, kasuan kasuko deialdiaren oinarri espezifikoetan xedatutakoarekin bat.

2. Hautatze-prozesuetako beste fase gisa zehaztu ahalko da prestakuntza-ikastaroak gainditzeko beharra edota praktikaldiak gainditzeko beharra, oinarri espezifikoetan zehaztutakoari jarraikiz.

3. Oposizio-faseko ariketak:

a) Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan adieraziriko ariketek osatuko dute oposizio-fasea.

b) Izangaiei deialdi bakarra egingo zaie ariketa bakoitzerako. Salbuespenezko egoerak justifikatu beharko dira eta dagokion kalifikazio-epaimahaiak ebaluatuko dira. Identifikatze ondoretarako, izangaiek nortasun agiria, pasaportea edo gidabaimena eraman beharko dute hautaprobetara, edo, atzerritarren kasuan, agiri baliokidea. Hautaprobak egiten diren egunean aurkeztutako errekurtsua ebatzi gabe badago, interesdunek hautaprobak egin ahalko dituzte, kautelazko neurri gisa. Kautelazko neurri horien ondorioz egindako ariketek ez dute inongo baliorik izango errekurtsua ezesten bada.

c) Kalifikazio-epaimahaiak instantzietan eskatutako denbora- edota baliabide-egokitzapenak egingo dituzte ariketak egiteko, betiere, horren bidez ez bada lausoten probaren edukia eta ez bada murrizten edo kaltetzen eskatzen den gaitasun maila.

d) Hala dagokionean, Administrazio Publikorako Estatuko Idazkaritzak egingo duen zozketaren bidez zehaztuko da izangaien jardute-hurrenkera, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren, Langileria Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzura sartzeko, Estatuko Administrazio Orokorreko lanpostuak hornitzeko eta funtzionario zibilen promozio profesionalerako erregelamendu orokorra onestekoaren 17. artikuluan xedatutakoarekin bat. Ez baldin badago zozketan ateratzen den letrarekin hasten den abizenik duten izangairik, hurrengo letra izango da jardute-hurrenkera zehazteko erabiliko dena.

e) Gutxienez, bi (2) hilabeteko epea eman beharko da alkate-udalburuak onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda argitaratzeko dekretua argitaratzen denetik lehenengo ariketa egin arte, oinarri espezifikoetan kontrakoa adierazi ezean.

f) Ariketa baten behin betiko emaitzak argitaratzen direnetik hurrengo ariketa hasi arte, gutxienez, hirurogeita hamabi ordu igaro behar dira, eta, gehienez ere, berrogeita bost egun natural.

g) Behin hautaprobak hasita, ez da nahitaezkoa izango handik aurrerako iragarkiak ALHAO-n argitaratzea. Epaimahaiak iragarki horiek argitaratuko ditu udaletxeko iragarkien taulan eta udal webgunean, gutxienez, hautaprobak hasi baino hogeita lau (24) ordu lehenago ariketa bera bada, edo berrogeita zortzi (48) ordu lehenago beste ariketa bat denean.

h) Oposizio-faseko ariketa bakoitza zuzentzen bukatutakoan, epaimahaiak gainditu dutenen zerrenda eta haien kalifikazioak argitaratuko ditu udaletxeko iragarkien taulan eta udal webgunean. Zerrenda ezberdinak egingo dira deialdiaren oinarri espezifikoetan zehaztutako txanda bakoitzerako.

i) Ariketa bakoitzaren behin behineko emaitzak argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera, izangaiek hamar laneguneko epea izango dute kalifikazio-epaimahaiaren aurrean ariketari buruz egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak aurkezteko epea agortutakoan, eta aurkeztutakoak ebatzi ostean, epaimahaiak ariketa bakoitzaren behin betiko emaitzak argitaratzeko agindua emango du.

j) Oposizio-fasea amaitzeko, azken proba gainditu duten izangaien behin betiko zerrendak argitaratuko dira.

k) Oro har, bi gaitegi izango du deialdi bakoitzak: amankomuna, alegia, plazaren titulazio taldeari dagokiona eta izaera espezifikoko gaitegia, hots, plazari berari dagokiona, betiere, oinarri espezifikoetan kontrakoa adierazten ez bada.

4. Oinarri espezifikoetan prozesu bakoitzerako jaso diren espezialitateak gorabehera, hautatze-prozesuan lehiaketa-fase bat badago, arau hauek bete beharko dira:

a) Izangaiek alegatutako eta egiaztatutako merituak balioetsiko dira fase honetan, meritu bakoitzari dagozkion puntuak emanda kasuan kasuko deialdian eta oinarri espezifikoetan jasotako baremoen arabera.

b) Hala dagokionean, jatorrizko dokumentuak edo kopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira merituak egiaztatzeko, eta, dokumentu horiek baliozkoak izan daitezen, informazio hau eduki beharko dute: data, eta dokumentuak konpultsatu dituen pertsonaren izen-abizenak, NAN zenbakia eta izenpe irakurgarria. Baldintza horiek bete ezean, merituak ez dira egiaztatutzat joko.

c) Ez dira kontuan hartuko instantziak aurkezteko epea agortzean behar bezala justifikatu ez diren merituak, soilik eskatzailearen adierazpenetan oinarritutakoak, ezta dagokion baremoaren arabera kasuan kasuko merituak balioesteko beharrezkoak diren datuak ez dauzkaten dokumentuak ere.

d) Oinarri espezifikoetan laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den eguna izango da alegatutako merituak eta betekizunak lortuak edo beteak edukitzeko erreferentzia-data, betiere, oinarri espezifikoetan bertan beste eperik zehazten ez bada.

e) Audio Udalean eta haren organismo autonomoetan emandako zerbitzuak alegatu egin beharko dira, baina interesdunek ez dituzte egiaztatu beharko. Audio Udalak balioetsiko ditu zerbitzuengatik meritu horiek, ofizioz. Gainerako administrazio publikoek horretarako dituzten ereduak erabilia egiaztatuko dira administrazio horietan emandako zerbitzuen denbora. Nolanahi ere, lan egindako aldiak xehakatu beharko dira, aldi bakoitzean izandako kidegoa edo eskala, azpieskala eta klase edo kategoria zehaztuta. Audio Udalez edo haren organismo autonomoekin bestelako administrazioetan sailkapen profesionaleko talde edo azpitalde desberdinei edota kidego edo eskala desberdinei irekitako plazetan emandako zerbitzuak alegatu eta egiaztatu nahi direnean, eta plazen irekitasun hori ez bada jaso emandako zerbitzuen ziurtagirian, hori justifikatzeko dokumentua aurkeztu beharko da. Euskal Autonomia Erkidegoko toki eta foru administrazioan emandako zerbitzuak balioekidetzat joko dira, uztailearen 30eko 208/1990 Dekretuan, Euskal Administrazio Publikoetako Kidego eta Eskalen arteko Baliokidetasunak zehaztekoan xedatutakoaren arabera, eta alde batera utzita otsailaren 25eko 1/2004 Legearen, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko nahiz organismo autonomoetako kidego eta eskalen antolaketari buruzkoaren arabera legozkiokoen jarduketak.

f) Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan hala aurreikusten denean, eta zehazten diren baremoekin bat, deialdien arabera eskatzen den ezagutza informatikoen maila egiaztatzea meritu gisa balioetsiko da, Informazioaren Gizarterako Euskadi Planak KZ Gunea zentro

publikoetan eskuragarri dituen moduluak lortzeko proba gaindituta. IT Txartelaren egiaztapena eginda egiaztatuko da modulu horiek gainditu izana. Aplikazio baten azken bertsioaren egiaztagiriek aurreko bertsioenak indargabetuko dituzte. Horrez gain, organismo ofizialek edo ikastegi homologatuek jaulkitako ziurtagirien bidez ere egiaztatu ahaliko dira ezagutza informatikoak. Modulu beraren oinarriko bertsioa eta bertsio aurreratua egiaztatzen badira, azken hori baino ez da balioetsiko.

g) Aurreko puntuetan aipatutako dokumentazioa prozesu bakoitzaren oinarri espezifikokoetan zehaztutako moduan aurkeztuko da.

5. Hizkuntza-eskakizunen ondoreetarako, aplikatzekoak izango dira apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan (1997ko apirilaren 17ko Euskal Herri Aldizkari Ofiziala), urriaren 6ko 263/1998 Dekretuan (1998ko urriaren 23ko Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala) nahiz balioespena egiteko onean indarrean dauden gainerako lege eta arauetan xedatutakoak.

a) Edozein plaza eskuratzeko, nahitaezko betekizuna izango da kasuan kasuko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea, eta plazarako eskatzen direnak baino hizkuntza-eskakizun altuagoak meritu gisa hartu ahaliko dira kontuan. Deialdi bakoitzaren oinarrietan adieraziko da egiaztatutako hizkuntza-eskakizun bakoitzari dagokion portzentajea.

b) Audio Udalean edo haren organismo autonomoetan hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatua dutenek ez dute berriz egiaztatu beharko parte hartzen duten hautatze-prozesuaren barruan. Gainera, hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatua duten eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatu gisa jasoak dauden izangaiek ez dute egiaztatu beharko; hortaz, parte-hartzaileak esanbidezko baimena emango dio Audio Udalari aipatutako erregistroan beharrezko datuak egiaztatzeko.

Hamazortzigarrena.— Prozesuaren emaitza

1. Hautatze-prozesuaren fase puntuagarri bakoitzean lortutako puntuen baturak zehaztuko du sailkapenaren ordena, kasuan kasuko oinarri espezifikokoetan zehazten denarekin bat.

2. Berdinketarik badago, emakumezkoen emango zaie lehentasuna emakumezkoen proportzioa ehuneko berrogeitik behera dagoen eskala, azpieskala eta klaseetan, betiere, beste izangaiek neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten eta sexuaren ondoriozko diskriminaziorik eragiten ez duten arrazoirik ez badute argudiatzen, esaterako, enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboetakoak izatea.

3. Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, irizpide hauek aplikatuko dira berdinketa apurtzeko lehentasunen hurrenkerak zehazteko, hemen zerrendatu diren ordenan:

a) Lehenik, iragarritako plazaren eskala, azpieskala edota kategoria bereko lanpostuetan Audioko Udal Euskaltegian lanegun gehien eman dituen hautagaiaren alde egingo da.

b) Bigarrenik, Audioko Udal Euskaltegian zerbitzu denbora luzeena duen hautagaiaren alde egingo da.

c) Hirugarrenik, beste administrazio publikoetan zerbitzu denbora luzeena duen hautagaiaren alde egingo da.

d) Laugarrenik, oposizio-fasean puntuaziorik altuena lortu duenaren alde.

4. Hautatze-prozesua bukatutakoan, epaimahaiak udaletxeko iragarkien taulan eta udal webgunean argitaratuko ditu ariketak gainditu dituzten pertsonen behin betiko kalifikazioak, puntuazio handiena lortu duenetik txikiena lortu duenera, eta esanbidez

adierazita hautatu diren pertsonak; pertsona hautatuen kopuruak ezingo du gainditu deitutako plazzen kopurua, deialdian bertan hala aurreikusi ez bada.

5. Behin betiko kalifikazio horiek argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera, interesdunek hamar laneguneko epea izango dute kalifikazio epaimahaiaren aurrean egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko, baina soil-soilik lehiaketa-faseari dagozkionak eta, kasua bada, berdinketak apurtzeko irizpideei dagozkienak.

6. Erreklamazioak aurkezteko epea agortutakoan eta aurkeztu direnak ebatzi ostean, epaimahai bakoitzak agindua emango du hautatutako pertsonen eta eskaintako postuen zerrendak argitaratzeko, eta hamar laneguneko epea emango du izangaiek postu horien lehentasun-hurrenkera adierazi dezaten. Helburuen lehentasun-hurrenkera garaz eta behar bezala adierazi ezean, hurrenkera horretako azken lekura igaroko da.

7. Hamar laneguneko epe hori agortutakoan, kasuan kasuko epaimahaiak praktiketako funtzionarioaren izendapen-proposamena egingo du, hautatutako izangai bakoitzari dagokion helburu-lanpostua adierazita.

8. Lanpostuan hastea errazte aldera, parte hartzeko edozein sisteman desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako kupoaren bidez hautatutako izangaiek dagokion kalifikazio-epaimahaiari eskatu ahalko diote plazak hautatzeko lehentasun-hurrenkera aldatzeko mendekotasun pertsonalari lotutako arrazoiengatik, joan-etorrietarako arazoak izateagatik eta antzeko arrazoiengatik eta arrazoi horiek behar bezala egiaztatu beharko dira. Behar bezala justifikatzen denean erabakiko du epaimahaiak aldaketa hori egitea, eta desgaitasuna duen pertsonak lanpostua hartzen duela ahalbidetzeko ahalik eta aldaketarik txikiena egin beharko du lehentasun-hurrenkera.

Hemeretzigarrena.— Aldi baterako enplegurako poltsak

Lehiaketa-oposizio bidezko prozesu berezi hauetatik lan-poltsak eratorri ahalko dira, kasuan kasuko oinarri espezifikoa xedatutakoarekin bat.

AZKEN ARAUA

Oinarri hauetan aurreikusi ez diren alderdiei dagokienez, lege hauek aplikatu beharko dira: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu batetara onestekoa, uztailaren 6ko 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa, abuztuaren 2ko 30/1984 Legea, Funtzio Publiko Eraberritzeko Neurri buruzkoa, apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarri buruzkoa, azaroaren 11ko 20/2021 Legea, Enplegu Publikoan Behin-behinekotasuna murrizteko Neurri Urgenteei buruzkoa eta horiek garatzeko legeak nahiz egoki eta beharrezkotzat jotzen diren gainerakoak.

2. ERANSKINA

IRAKASLEEN OINARRI ESPEZIFIKOAK – ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEN PROZESUAK (EGONKORTZEA)

Lehenengoa.— Iragarritako plazak

Sarbide libreko oposizio-lehiaketa bidez irakasleen bi plaza (2) hornitzeko deialdia egin da (A taldea, A-2 titulazio-azpitaldea), administrazio bereziko eskalakoak, azpieskala

teknikokoak, A ordainsari-taldeari dagozkion ordainsariekin, Audio Udalak 2022ko apirilaren 1eko ALHAO-n iragarritako enplegu publikoaren eskaintzaren barruan.

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen, Enplegu Publikoan Behin-behinekotasuna Murrizteko Neurri Urgenteei buruzkoaren 2. artikuluan jasotako egonkortze-prozesua aplikatuko da iragarritako plaza hornitzeko.

- Txanda librea: plaza 2, derrigorrezko 4. hizkuntza-eskakizunarekin.

Karrerako funtzionario gisa lanpostuaren jabetza hartzen den unean hutsik dauden plaza arabera zehaztuko da zerbitzuak zer destinotan emango diren.

Bigarrena.— Betekizunak

Oinarri orokorretan zehaztutako betekizunez gain, izangaiek unibertsitateko diploma edo gradua eduki beharko dute, edo hori jaulkitzeko eskubideak ordainduak izan beharko dituzte.

Hirugarrena.— Azterketa egiteko eskubideak

Hautaprobetan izangai gisa izena eman nahi duten pertsonak azterketa-eskubidearen tasak ordaindu beharko dituzte, Audio Udalean indarrean dauden ordenantza fiskalean jasotako baldintzekin bat.

Nolanahi ere, eskabideak aurkezteko epearen barruan egin beharko da azterketa-eskubideen ordainketa.

Laugarrena.— Instantziak

Hautatze-prozesuetan parte hartu nahi duten pertsonak udal-webgunean eskuragarri dagoen eskabide elektronikoa bete eta aurkeztu beharko dute (www.laudio.eus) edo Audioko udaletxeko Herritarrentzako Arreta Zerbitzura joan, bertan bete eta aurkezteko. Horrez gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehazten diren lekuetan ere aurkeztu ahalko dira eskabideak.

20 laneguneko epea emango da eskabidea aurkezteko eta dagokion tasa ordaintzeko, deialdi honen iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

Halaber, hautatze-prozesuan parte hartzeak esan nahi du onartu egiten dela hautatze-prozesuaren edozein unetan Audio Udalean Lan Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuak egokitzat jotzen dituen azterketa edota kontrolak egin ahalko dituela, izangaiek eduki behar duten gaitasun funtzionala dutela egiaztatze aldera.

Bosgarrena.— Hautatze-prozesua

Sarrera libreko lehiaketa-oposizio bidez hautatuko dira izangaia. Horiek horrela, oposizio-fasearen ostean, lehiaketa-fasea (merituen balorazioa) egingo da.

1. Oposizio fasea

Hiru (3) ariketa izango ditu oposizio-faseak.

1.1. Lehenengo ariketa

Ariketa hau nahitaezkoa da, eta gainditzen ez duten izangaia baztertu egingo dira.

Test motako 80 galderari erantzun beharko zaie idatziz; horietatik 70 galdera baino ez dira ebaluagarri izango, eta gainerako 10ak erreserbakoak. Launa erantzun egongo da aukeran, baina bakarra izango da zuzena. Epaimahaiak zehaztuko ditu galderak, erantzunak eta ariketa egiteko gehienezko denbora.

Aurretik argitaratua egongo den galdera-sorta batetik hautatuko dira ariketako galderak, gaitegiaren I. zatian jasotako gaietan oinarrituta (1etik 9ra bitarteko ikasgaiak).

Azken 10 galderak erreserbako galderatzat hartu dira eta lehenengo 70 galderetakoren bat balio gabetzen denean baino ez dira kontuan hartuko. Hurrenkerari zorrotz jarraituko zaio, 71.etik 80.era, kontuan hartu barik balio gabetutako galdera edo galderak gaitegiko zer zatiri egiten dioten erreferentzia.

Erantzun zuzen bakoitzak puntu bat (1,00) emango du, eta, beraz, zuzenean erdietsi daitekeen puntuazioa hirurogeita hamar (70,00) puntuko izango da, alegia; azken puntuaziorako berrogei (40,00) puntu lortu ahalko dira.

Erantzun gabeko galderak eta erantzun bikoitzek ez dute penalizaziorik izango.

Ariketa honen puntuazioa zero (0,00) eta berrogei (40,00) puntu artekoa izango da, eta automatikoki baztertu egingo dira puntuazio minimoa, hau da, hogeitaz (20,00) puntu lortzen ez duten izangaiak.

1.2. Bigarren ariketa

Ariketa hau nahitaezkoa da, eta gainditzen ez duten izangaiak baztertu egingo dira.

Izaera teoriko-praktikoa izango du; test motako 50 galderako galdetegiari erantzun beharko zaio. Horietatik, 40 erantzun baino ez dira ebaluagarri izango eta gainerako 10ak erreserbakoak. Galderen gaia epaimahaiak proposatutako kasu praktikoa bat edo batzuek izango osatuko dute, baina, nolana ere, gaitegiko II. zatiarekin erlazionatutakoak izango dira (10.etik 18.era bitarteko gaiak), edota plazen eginkizun eta zeregin nagusiekin zerikusia izango dute. Epaimahaiak zehaztuko du galdetegiari erantzuteko gehienezko denbora.

Erantzun zuzen bakoitzak puntu bat (1,00) emango du, eta, beraz, zuzenean erdietsi daitekeen puntuazioa berrogei (40,00) puntuko izango da, alegia; azken puntuaziorako hogeitaz (20,00) puntu lortu ahalko dira.

Ariketa honen puntuazioa zero (0,00) eta hogeitaz (20,00) puntu artekoa izango da, eta automatikoki baztertu egingo dira puntuazio minimoa, hau da, hamar (10,00) puntu lortzen ez duten izangaiak.

Erantzun gabeko galderak eta erantzun bikoitzek ez dute penalizaziorik izango.

Epaimahaiak egokitzat jotzen badu, lehenengo bi ariketak egun berean egiteko erabakia hartu ahalko du, eta, kasu horretan, egokitzat jotzen duen atsedeen tartea zehaztuko du ariketa baten eta bestearen artean. Kasu horretan, lehenengo ariketaren behin betiko puntuazioaren arabera GAI diren pertsonen baino ez zaie bigarren ariketa zuzenduko eta zenbatuko.

1.3. Hirugarren ariketa

Nahitaezkoa eta baztertzaila izango da euskarazko 4. hizkuntza-eskakizun tekniko profesionala derrigorrezkoa duten plazetan.

Euskarazko 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba izango da, eta epaimahaiak zehaztuko du proba egiteko modua; horretarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako jarraibideak aplikatuko dira, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 99.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Edonola ere, euskararen ezagutza egiaztatzeko ariketa azkena izango da, eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak hautatze-prozesuetan hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko zehaztu duen egutegira moldatuko da.

Ez dute ariketa hau egin beharko Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak jaulkitako 4. hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiria edo Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera euskarazko C-2 maila edo apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 41. artikuluan, azaroaren 9koa 297/2010 Legearen 3. artikuluan eta hurrengoetan nahiz apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan zerrendatutako beste tituluren bat egiaztatua dutenek, betiere, ariketa egiteko data baino lehenago egiaztatzen bada Laudioko udaletxean dagokion ziurtagiria aurkeztuta; hori egin ezean, ez da izangairik salbuetsiko ariketatik.

Hala ere, ez da beharrezkoa izango ziurtagiri hori aurkeztea baldin eta hizkuntza-eskakizuna Euskara Titulu eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatua badago; ondore horietarako, pertsona parte-hartzaileak beren beregi baimenduko dio Laudio Udalarai aipatutako Erregistroan beharrezkoa egiaztatze-lanak egitea.

Hizkuntza-eskakizunak apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuestekoan xedatutakoan oinarrituta egiaztatu nahi dituztenek, dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute.

1.4. Puntuazioa

Nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira lehenengo eta bigarren ariketak, eta, gehienez ere, 60 puntu lortu ahalko dira.

Hirugarren ariketan, hau da, euskara proban, "Gai" edo "Ez gai" kalifikazioak baino ez dira emango, derrigorrezko hizkuntza eskakizunaren arabera.

Hortaz, 60 puntu lortu ahalko dira gehienez ere oposizio-fasean.

2. Lehiaketa fasea

Oposizio fasea amaitutakoan hasiko da lehiaketa fasea, eta lehenengoa gainditu duten izangaiekin. Lehiaketa fasean, izangaiek alegatutako eta egiaztatutako merituen baloratuko dira. Merituen baremo honen arabera emango dira puntuak:

Oinarri hauetan adierazitakoaren arabera egingo da merituen balorazioa, eta, beraz, ez da bestelako meriturik kontuan hartuko.

2.1 Esperientzia profesionala

Kontuan hartuko den esperientzia izango da Estatuko Administrazio Orokorrean, autonomia erkidegoetako administrazioetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 3.1 artikuluan zehaztutako toki-administrazio erakundeetan emandakoa karrerako, bitarteko edo lan-legepeko funtzionario gisa. Esperientzia hori egiaztatzeko, "emandako zerbitzuen ziurtagiria" aurkeztu beharko da, administrazio publikoak jaulkia, zeinetan jasoko baitira eskainitako plazaren titulazio-talde berebean, epaimahaiak eskainitako plazarekin bateragarritzat jotzen dituen eginkizun nahiz kategoriekin eta edozein harreman juridikoren bidez emandako zerbitzuak, baina alde batera utzita zerbitzu zibilen edo merkataritza-zerbitzuen errentamendu-kontratuak, beka nahiz prestakuntza-praktikak. Oinarri espezifikoen hauen laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko den egunaren aurreko zerbitzu-aldiak baino ez dira kontuan hartuko.

Kasuan kasuko organo eskumendunak jaulkitako ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira emandako zerbitzuak, eta esanbidez adierazi beharko da zer lanpostutan eta zenbat

denboraz eman diren. Ez dira kontuan hartuko lan-esperientziarekin erlazionatutako meritua baldin eta ez badituzte kontzeptu hauek esanbidez adierazten:

- Betetako lanpostuaren izendapena eta kategoria profesionala.
- Kontratazio aldien hasiera- eta amaiera-datak.
- Lanpostuko eginkizun nagusiak, baldin eta irizten bazaio kategoria adieraztea ez dela nahikoa lanpostua behar bezala deskribatzeko, edo alegatutako esperientzia ez dela erreferentziako lanpostukoarekiko behar bezain antzekoa.

Laudioko Udal Euskaltegian eta Laudio Udalean emandako zerbitzuak alegatu egin beharko dira, baina pertsona interesdunek ez dituzte egiaztatu beharko. Ofizioz zenbatuko dira zerbitzu horiek.

Gehienez ere, 40 puntu emango dira, honako baremo hauei jarraikiz:

- Esperientzia orokorra: esperientzia orokor gisa ulertuko da administrazio publikoetan, baina hartuta Laudioko Udal Euskaltegian, irakasle plazetan edo eginkizun parekagarriak dituzten A taldeko eta A2 azpitaldeko plazetan emandako zerbitzuak. Gehienez ere, 20,00 puntu lortu ahalko dira esperientzia orokorrarengatik, zerbitzu-egun bakoitzeko 0,016 puntu emanda.

- Esperientzia espezifikoa: esperientzia espezifikoa gisa ulertuko da Laudioko Udal Euskaltegian irakasle plazetan edo eginkizun parekagarriak dituzten A taldeko eta A2 azpitaldeko plazetan emandako zerbitzuak. Gehienez ere, 20,00 puntu lortu ahalko dira esperientzia espezifikorengatik, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera emandako zerbitzu-egun bakoitzeko 0,016 puntu zenbatuta.

Nolanahi ere, lanaldi partzialarekin edo lanaldi murriztuarekin zerbitzuan emandako aldiak lanaldi osokotzat zenbatuko dira.

2.2. Puntuazioa

Lehiaketa-fasean lortu daitekeen puntuazio maximoa 40 puntukoa izango da.

Seigarrena.— Prozesuaren emaitza

Prozesuan lortutako puntuazio guztiak batuta kalkulatu da hautatze-prozesuaren azken kalifikazioa. Berdinketa gertatzen bada, oinarri orokorretan xedatutakoa aplikatuko da.

Hautatze-prozesua amaitutakoan, epaimahaiak udaletxeko iragarkien taulan eta udal-webgunean argitaratuko ditu gainditu duten pertsonen behin-behineko kalifikazioak, puntuazio handiena lortu duenetik hasi eta txikiena lortu duenarekin amaituta, eta esanbidez adierazita hautatu diren pertsonak; pertsona hautatuen kopuruak ezingo du gainditu deialdian iragarritako plazen kopurua.

Interesdunek 10 laneguneko epea izango dute egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak formulatzeko, behin-behineko emaitzen zerrenda argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

Erreklamazioak aurkezten badira, horiek ebatzi ostean argitaratuko du epaimahaiak hautatze-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrenda.

Epaimahaiak esleitu gabe utzi ahal izango ditu deialdian sartutako plazak, baldin eta irizten badio probetan izangaiek ez dutela lanpostuan aritzeko beharrezko maila eman.

Zazpigarrena.— Dokumentazioa aurkeztea

Hautatutako pertsonen 15 laneguneko epea izango dute oinarri orokorretan zehaztutako dokumentuak Laudioko udaletxeko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan aurkezteko,

prozesuaren emaitzak argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Zortzigarrena.— Izendapena eta jabetza hartzea

Oinarri orokorretan xedatutakoarekin bat egingo dira Laudioko Udal Euskaltegiko karrerako funtzionarioen izendapenak.

Bederatzigarrena.— Aldi baterako enplegu-poltsa

Deialdia amaitutakoan, lan-poltsa bat eratuko da oposizio-faseko ariketak gainditu arren plaza eskuratu ez duten pertsona izangai guztiekin.

Lan-poltsa hori subsidiarioki aplikatuko da dagoeneko Laudioko Udal Euskaltegian dagoenarekiko nahiz irakasleen plazak betetzeko aurrerantzean egin ahalko diren hautatze-prozesuetatik erator litezkeen lan-poltsekiko, eta Laudio Udaleko lan-poltsei buruzko araudian xedatutakoarekin bat kudeatuko dira.

Berdinketarik balego, lehenik eta behin, oposizio-faseko bigarren ariketan puntuaziorik handiena jaso duenaren alde egingo da, eta, bigarrenik, Laudioko Udal Euskaltegian administrariaren plazetan edota eginkizun parekagarriak dituzten A taldeko eta A2 azpitaldeko plazetan esperientziarik handiena duen izangaiaren alde.

Bi urtez egongo da indarrean prozesu honetatik eratorriko den lan-poltsa, onesten denetik aurrera zenbatuta, eta indarraldia urtez urte luzatu ahalko zaio, denbora-mugarik gabe, salbu eta alkate-udalburuak besterik ebazten badu.

Hamargarrena.— Aurkaratzeko bideak

Oinarri hauek nahieran errekurritu daitezke alkate-udalburuari berraztertze-errekurtsioa aurkeztuta, hilabeteko epean, eta zuzenean administrazioarekiko auzi-bidera jotzeko aukera ere badago, bi hilabeteko epean. Bi epe horiek oinarriok ALHAO-n argitaratzen diren egunetik aurrera zenbatuko dira, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 112, 123 eta 124. artikuluetan nahiz uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzekoaren 46. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Gaitegia

I. zatia

1. gaia. Konstituzioa. Egitura eta edukia. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.
2. gaia. Estatuaren lurralde-antolamendua. Alderdi orokorrak. Autonomia-erkidegoak: antolamendua eta eskumenak. Autonomia-estatutuak.
3. gaia. Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eta lurralde historikoen arteko eskumen-banaketarekin loturiko alderdi orokorrak. Ekonomia Ituna. Toki-erakundeen eskumenak.
4. gaia. Berdintasuna: testuingurua eta aurrekariak. Xedea eta helburua. Printzipio orokorrak: tratu-berdintasuna; aukera-berdintasuna; aniztasuna eta diferentzia errespetatzea; genero-ikuspegia txertatzea; ekintza positiboa; sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea; ordezkaritza orekatua; eta lankidetzeta eta koordinazioa. Administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak.

5. gaia. Euskararen erabileraren normalizazioa. Herritarren hizkuntza-eskubideak. Enplegatu publikoen hizkuntza-gaikuntza. Euskararen erabilera normalizatzeko planak.

6. gaia. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako langileak. Enplegatu publiko motak. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako enplegatu publikoen eskubideak eta eginbeharrak. Ordainsariak. Diziiplina-araubidea.

7. gaia. Laneko arriskuen prebentzioa. Xedea. Eskubideak eta betebeharrak: laneko arriskuetatik babesteko eskubidea. Prebentzio-jardueraren printzipioak. Prebentzio-plana, arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza. Langileen prestakuntza.

8. gaia. Lan-arriskuen prebentzioa: Datuak bisualizatzeko pantailak.

9. gaia. Komunikazioa administrazioan. Administrazio-hizkeraren erabilera zuzena. Idatzizko komunikazioa. Administrazio-hizkera ez-sexista. Dokumentu idatzien edukia eta aurkezpena: posta, komunikazioak, baimenak, jakinarazpenak, eskabide-orriak, ziurtapenak eta konpultsak.

II. zatia

10. gaia. Hizkuntzen ikaskuntzarako, irakaskuntzarako eta ebaluaziorako erreferentzia marko europarra. 3. atala. Erreferentzia-maila amankomunak (https://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/euro_marko/eu_euro_mar/adjuntos/europako_markoa.pdf)

11. gaia. Hizkuntzen ikaskuntzarako, irakaskuntzarako eta ebaluaziorako erreferentzia marko europarra. 5. atala. Erabiltzaile edo ikaslearen gaitasunak (https://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/euro_marko/eu_euro_mar/adjuntos/europako_markoa.pdf)

12. gaia. Hizkuntzen ikaskuntzarako, irakaskuntzarako eta ebaluaziorako erreferentzia marko europarra. 8. atala. Hizkuntza dibertsifikazioa eta curriculumak (https://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/euro_marko/eu_euro_mar/adjuntos/europako_markoa.pdf)

13. gaia. Hizkuntzen ikaskuntzarako, irakaskuntzarako eta ebaluaziorako erreferentzia marko europarra. 9. atala. Ebaluazioa (https://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/euro_marko/eu_euro_mar/adjuntos/europako_markoa.pdf)

14. gaia. Helduen Euskalduntzerako Oinarrizko Curriculumak (HEOC 2021). Helduen euskalduntze mailak. (https://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/curriculumak/eu_9716/adjuntos/HEOC-2021-DIGITALA.pdf)

15. gaia. Helduen Euskalduntzerako Oinarrizko Curriculumak (HEOC 2021). Pertsona helduen euskalduntzearen osagaiak: Testu-gaitasuna garatzea. Helduen Euskalduntzerako Oinarrizko Curriculumak (HEOC 2021). Pertsona helduen euskalduntzearen osagaiak: Ebaluazioa. (https://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/curriculumak/eu_9716/adjuntos/HEOC-2021-DIGITALA.pdf)

3. ERANSKINA

ADMINISTRARIEN OINARRI ESPEZIFIKOAK – ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEN PROZESUAK (EGONKORTZEA)

Lehenengoa.— Iragarritako plazak

Sarbide libreko lehiaketa-oposizio bidez administrari plaza bat (1) hornitzeko deialdia egin da (C taldea, C-1 titulazio-azpitaldea), administrazio orokorreko eskalakoak, azpieskala administratibokoak, C ordainsari-taldeari dagozkion ordainsariekin, Audio Udalak 2022ko apirilaren 1eko ALHAO-n iragarritako enplegu publikoaren eskaintzaren barruan.

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen, Enplegu Publikoan Behin-behinekotasuna Murrizteko Neurri Urgenteei buruzkoaren 2. artikuluan jasotako egonkortze-prozesua aplikatuko da iragarritako plaza hornitzeko.

- Txanda libre: plaza 1, derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizunarekin.

Karrerako funtzionario gisa lanpostuaren jabetza hartzen den unean hutsik dauden plazen arabera zehaztuko da zerbitzuak zer destinotan emango diren.

Bigarrena.— Betekizunak

Oinarri orokorretan zehaztutako betekizunetz gain, Batxilergo titulua, 2. graduko Lanbide Heziketa edo horien baliokide den titulu bat eduki beharko da, edo hori jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki beharko dira. Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da.

Hirugarrena.— Azterketa egiteko eskubideak

Hautaprotetan izangai gisa izena eman nahi duten pertsonen azterketa-eskubidearen tasak ordaindu beharko dituzte, Audio Udalean indarrean dauden ordenantza fiskalean jasotako baldintzekin bat.

Nolanahi ere, eskabideak aurkezteko epearen barruan egin beharko da azterketa-eskubideen ordainketa.

Laugarrena.— Instantziak

Hautatze-prozesuetan parte hartu nahi duten pertsonen udal-webgunean eskuragarri dagoen eskabide elektronikoa bete eta aurkeztu beharko dute (www.audio.eus) edo Audioko udaletxeko Herritarrentzako Arreta Zerbitzura joan, bertan bete eta aurkezteko. Horrez gain, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehazten diren lekuetan ere aurkeztu ahaliko dira eskabideak.

20 laneguneko epea emango da eskabidea aurkezteko eta dagokion tasa ordaintzeko, deialdi honen iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

Halaber, hautatze-prozesuan parte hartzeak esan nahi du onartu egiten dela hautatze-prozesuaren edozein unetan Audio Udalean Lan Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuak egokitzat jotzen dituen azterketa edota kontrolak egin ahaliko dituela, izangaiak eduki behar duten gaitasun funtzionala dutela egiaztatze aldera.

Bosgarrena.— Hautatze-prozesua

Sarrera libreko lehiaketa-oposizio bidez hautatuko dira izangaiak. Horiek horrela, oposizio-fasearen ostean, lehiaketa-fasea (merituen balorazioa) egingo da.

1. Oposizio fasea

Hiru (3) ariketa izango ditu oposizio-faseak.

1.1. Lehenengo ariketa

Ariketa hau nahitaezkoa da, eta gainditzen ez duten izangaiak baztertu egingo dira.

Test motako 80 galderari erantzun beharko zaie idatziz; horietatik 70 galdera baino ez dira ebaluagarri izango, eta gainerako 10ak erreserbakoak. Launa erantzun egongo da aukeran, baina bakarra izango da zuzena. Epaimahaiak zehaztuko ditu galderak, erantzunak eta ariketa egiteko gehienezko denbora.

Aurretik argitaratua egongo den galdera-sorta batetik hautatuko dira ariketako galderak, gaitegiaren I. zatian jasotako gaietan oinarrituta (1etik 12ra bitarteko ikasgaiak).

Azken 10 galderak erreserbako galderatzat hartu dira eta lehenengo 70 galderetakoren bat baliogabetzen denean baino ez dira kontuan hartuko. Hurrenkerari zorrotz jarraituko zaio, 71.etik 80.era, kontuan hartu barik baliogabetutako galdera edo galderak gaitegiko zer zatiri egiten dioten erreferentzia.

Erantzun zuzen bakoitzak puntu bat (1,00) emango du, eta, beraz, zuzenean erdietsi daitekeen puntuazioa hirurogeita hamar (70,00) puntuko izango da, alegia; azken puntuaziorako berrogei (40,00) puntu lortu ahalko dira.

Erantzun gabeko galderek eta erantzun bikoitzek ez dute penalizaziorik izango.

Ariketa honen puntuazioa zero (0,00) eta berrogei (40,00) puntu artekoa izango da, eta automatikoki baztertu egingo dira puntuazio minimoa, hau da, hogeia (20,00) puntu lortzen ez duten izangaiak.

1.2. Bigarren ariketa

Ariketa hau nahitaezkoa da, eta gainditzen ez duten izangaiak baztertu egingo dira.

Izaera teoriko-praktikoa izango du; test motako 40 galderako galdetegiari erantzun beharko zaio. Horietatik, 30 erantzun baino ez dira ebaluagarri izango eta gainerako 10ak erreserbakoak. Galderen gaia epaimahaiak proposatutako kasu teoriko edo praktikoa bat edo batzuk izango osatuko dute, baina, nolana ere, gaitegiko II. zatiarekin erlazionatutakoak izango dira (12.etik 18.era bitarteko gaiak), edota plazen eginkizun eta zeregin nagusiekin zerikusia izango dute. Epaimahaiak zehaztuko du galdetegiari erantzuteko gehienezko denbora.

Erantzun zuzen bakoitzak puntu bat (1,00) emango du, eta, beraz, zuzenean erdietsi daitekeen puntuazioa hogeita hamar (30,00) puntuko izango da, alegia; azken puntuaziorako hogeia (20,00) puntu lortu ahalko dira.

Ariketa honen puntuazioa zero (0,00) eta hogeia (20,00) puntu artekoa izango da, eta automatikoki baztertu egingo dira puntuazio minimoa, hau da, hamar (10,00) puntu lortzen ez duten izangaiak.

Erantzun gabeko galderek eta erantzun bikoitzek ez dute penalizaziorik izango.

Epaimahaiak egokitzat jotzen badu, lehenengo bi ariketak egun berean egiteko erabakia hartu ahalko du, eta, kasu horretan, egokitzat jotzen duen atsedeen-tartea zehaztuko du ariketa baten eta bestearen artean. Kasu horretan, lehenengo ariketaren behin betiko puntuazioaren arabera "gai" diren pertsonen baino ez zaie bigarren ariketa zuzenduko eta zenbatuko.

1.3. Hirugarren ariketa

Nahitaezkoa eta baztertzaila izango da euskarazko 3. hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa duten plazetan.

Euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba izango da, eta epaimahaiak zehaztuko du proba egiteko modua; horretarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako jarraibideak aplikatuko dira, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 99.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Edonola ere, euskararen ezagutza egiaztatzeko ariketa azkena izango da, eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak hautatze-prozesuetan hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko zehaztu duen egutegira moldatuko da.

Ez dute ariketa hau egin beharko Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak jaulkitako 3. hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiria (edo maila altuagokoa) edo Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuaren arabeko euskarazko B-2 maila (edo altuagoa) edo apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 41. artikuluan, azaroaren 9koa 297/2010 Legearen 3. artikuluan eta hurrengoetan nahiz apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan zerrendatutako beste tituluren bat egiaztatua dutenek, betiere, ariketa egiteko data baino lehenago egiaztatzen bada Laudioko udaletxean dagokion ziurtagiria aurkeztuta; hori egin ezean, ez da izangairik salbuetsiko ariketatik.

Hala ere, ez da beharrezkoa izango ziurtagiri hori aurkeztea baldin eta hizkuntza-eskakizuna Euskara Titulu eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatua badago; ondore horietarako, pertsona parte-hartzaileak beren beregi baimenduko dio Laudio Udalarai aipatutako Erregistroan beharrezkoa egiaztatze-lanak egitea.

Hizkuntza-eskakizunak apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuestekoan xedatutakoan oinarrituta egiaztatu nahi dituztenek, dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute.

1.4. Puntuazioa

Nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira lehenengo eta bigarren ariketak, eta, gehienez ere, 60 puntu lortu ahalko dira.

Hirugarren ariketan, hau da, euskara proban, "Gai" edo "Ez gai" kalifikazioak baino ez dira emango, derrigorrezko hizkuntza eskakizunaren arabera.

Hortaz, 60 puntu lortu ahalko dira gehienez ere oposizio-fasean.

2. Lehiaketa fasea

Oposizio fasea amaitutakoan hasiko da lehiaketa fasea, eta lehenengoa gainditu duten izangaiekin. Lehiaketa fasean, izangaiek alegatutako eta egiaztatutako merituen baloratuko dira. Merituen baremo honen arabera emango dira puntuak:

Oinarri hauetan adierazitakoaren arabera egingo da merituen balorazioa, eta, beraz, ez da bestelako meriturik kontuan hartuko.

2.1 Esperientzia profesionala

Kontuan hartuko den esperientzia izango da Estatuko Administrazio Orokorrean, autonomia erkidegoetako administrazioetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 3.1 artikuluan zehaztutako toki-administrazioerako erakundeetan emandakoa karrerako, bitarteko edo lan-legepeko funtzionario gisa. Esperientzia hori egiaztatzeko, "emandako zerbitzuen ziurtagiria" aurkeztu beharko da, administrazio publikoak jaulkia, zeinetan jasoko baitira eskainitako plazaren titulazio-talde berebean, epaimahaiak eskainitako plazarekin bateragarritzat jotzen dituen eginkizun nahiz kategoriekin eta edozein harreman juridikoren bidez emandako zerbitzuak, baina alde batera utzita zerbitzu zibilen edo merkataritza-zerbitzuen errentamendu-kontratuak, bekak nahiz prestakuntza-praktikak. Oinarri espezifiko hauen laburpena Estatuko

Aldizkari Ofizialean argitaratuko den egunaren aurreko zerbitzu-aldiak baino ez dira kontuan hartuko.

Kasuan kasuko organo eskumendunak jaulkitako ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira emandako zerbitzuak, eta esanbidez adierazi beharko da zer lanpostutan eta zenbat denboraz eman diren. Ez dira kontuan hartuko lan-esperientziarekin erlazioz gertatutako merituak baldin eta ez badituzte kontzeptu hauek esanbidez adierazten:

- Betetako lanpostuaren izendapena eta kategoria profesionala.
- Kontratazio aldien hasiera- eta amaiera-datak.

- Lanpostuko eginkizun nagusiak, baldin eta irizten bazaio kategoria adieraztea ez dela nahikoa lanpostua behar bezala deskribatzeko, edo alegatutako esperientzia ez dela erreferentziako lanpostukoarekiko behar bezain antzekoa.

Laudioko Udal Euskaltegian eta Laudio Udalean emandako zerbitzuak alegatu egin beharko dira, baina pertsona interesdunek ez dituzte egiaztatu beharko. Ofizioz zenbatuko dira zerbitzu horiek.

Gehienez ere, 28 puntu emango dira, honako baremo hauei jarraikiz:

- Esperientzia orokorra: esperientzia orokor gisa ulertuko da administrazio publikoetan, barne hartuta Laudioko Udal Euskaltegian, administrari plazetan edo eginkizun parekagarriak dituzten C taldeko eta C1 azpitaldeko plazetan emandako zerbitzuak. Gehienez ere, 14,00 puntu lortu ahalko dira esperientzia orokorrarengatik, zerbitzu-egun bakoitzeko 0,009 puntu emanda.

- Esperientzia espezifikoa: esperientzia espezifikoa gisa ulertuko da Laudioko Udal Euskaltegian administrari plazetan edo eginkizun parekagarriak dituzten C taldeko eta C1 azpitaldeko plazetan emandako zerbitzuak. Gehienez ere, 14,00 puntu lortu ahalko dira esperientzia espezifikorengatik, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera emandako zerbitzu-egun bakoitzeko 0,009 puntu zenbatuta.

Nolanahi ere, lanaldi partzialarekin edo lanaldi murriztuarekin zerbitzuan emandako aldiak lanaldi osokotzat zenbatuko dira.

2.2. Hautatze-prozesuan parte hartzeko beharrezkoa den hizkuntza-eskakizuna baino altuagoa edukitzea

Baremo honen arabera baloratuko da:

- 4. hizkuntza-eskakizuna, edo eskakizun horren ezagutza mailaren pareko ezagutza egiaztatzeko titulu edo ziurtagiri ofiziala: 12 puntu.

Ez da beharrezkoa izango ziurtagiri hori aurkeztea baldin eta hizkuntza-eskakizuna Euskara Titulu eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatua badago. Ondore horietarako, pertsona parte-hartzaileek beren beregi baimendu beharko diote Laudio Udalarai aipatutako erregistroan beharrezko egiaztatze-lanak egitea.

2.3. Puntuazioa

Lehiaketa-fasean lortu daitekeen puntuazio maximoa 40 puntukoa izango da.

Seigarrena.— Prozesuaren emaitza

Prozesuan lortutako puntuazio guztiak batuta kalkulatu da hautatze-prozesuaren azken kalifikazioa. Berdinketa gertatzen bada, oinarri orokorretan xedatutakoa aplikatuko da.

Hautatze-prozesua amaitutakoan, epaimahaiak udaletxeko iragarkien taulan eta udal-webgunean argitaratuko ditu gauditu duten pertsonen behin-behineko kalifikazioak, puntuazio handiena lortu duenetik hasi eta txikiena lortu duenarekin amaituta, eta

esanbidez adierazita hautatu diren pertsonak; pertsona hautatuen kopuruak ezingo du gainditu deialdian iragarritako plazen kopurua.

Interesdunek 10 laneguneko epea izango dute egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak formulatzeko, behin-behineko emaitzen zerrenda argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

Erreklamazioak aurkezten badira, horiek ebatzi ostean argitaratuko du epaimahaiak hautatze-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrenda.

Epaimahaiak esleitu gabe utzi ahal izango ditu deialdian sartutako plazak, baldin eta irizten badio probetan izangaiek ez dutela lanpostuan aritzeko beharrezko maila eman.

Zazpigarrena.— Dokumentazioa aurkeztea

Hautatutako pertsonak 15 laneguneko epea izango dute oinarri orokorretan zehaztutako dokumentuak Laudioko udaletxeko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan aurkezteko, prozesuaren emaitzak argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Zortzigarrena.— Izendapena eta jabetza hartzea

Oinarri orokorretan xedatutakoarekin bat egingo dira Laudioko Udal Euskaltegiko karrerako funtzionarioen izendapenak.

Bederatzigarrena.— Aldi baterako enplegu-poltsa

Deialdia amaitutakoan, lan-poltsa bat eratuko da oposizio-faseko ariketak gainditu arren plaza eskuratu ez duten pertsona izangai guztiekin.

Lan-poltsa hori subsidiarioki aplikatuko da dagoeneko Laudioko Udal Euskaltegian dagoenarekiko nahiz administrarien plazak betetzeko aurrerantzean egin ahalko diren hautatze-prozesuetatik erator litezkeen lan-poltsekiko, eta Laudio Udaleko lan-poltsei buruzko araudian xedatutakoarekin bat kudeatuko dira.

Berdinketarik balego, lehenik eta behin, oposizio-faseko bigarren ariketan puntuaziorik handiena jaso duenaren alde egingo da, eta, bigarrenik, Laudio Udalean administrarien plazetan edota eginkizun parekagarriak dituzten C taldeko eta C1 azpitaldeko plazetan esperientziarik handiena duen izangaiaren alde.

Bi urtez egongo da indarrean prozesu honetatik eratorriko den lan-poltsa, onesten denetik aurrera zenbatuta, eta indarraldia urtez urte luzatu ahalko zaio, denbora-mugarik gabe, salbu eta alkate-udalburuak besterik ebatzen badu.

Hamargarrena.— Aurkaratzeko bideak

Oinarri hauek nahieran errekurritu daitezke alkate-udalburuari berraztertze-errekurtsua aurkeztuta, hilabeteko epean, eta zuzenean administrazioarekiko auzi-bidera jotzeko aukera ere badago, bi hilabeteko epean. Bi epe horiek oinarriok ALHAO-n argitaratzen diren egunetik aurrera zenbatuko dira, urriaren leko 39/2015 Legearen, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 112, 123 eta 124. artikuluetan nahiz uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzekoaren 46. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Gaitegia

I. zatia

1. gaia. Konstituzioa. Egitura eta edukia. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.
2. gaia. Berdintasuna: testuingurua eta aurrekariak. Xedea eta helburua. Printzipio orokorrak: tratu-berdintasuna; aukera-berdintasuna; aniztasuna eta diferentzia errespetatzea; genero-ikuspegia txertatzea; ekintza positiboa; sexuaren arabeko rolak eta estereotipoak desagerraraztea; ordezkaritza orekatua; eta lankidetzeta eta koordinazioa. Administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak.
3. gaia. Euskararen erabileraren normalizazioa. Herritarren hizkuntza-eskubideak. Enplegatu publikoen hizkuntza-gaikuntza. Euskararen erabilera normalizatzeko planak.
4. gaia. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako langileak. Enplegatu publiko motak. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako enplegatu publikoen eskubideak eta eginbeharrak. Ordainsariak. Diziplina-araubidea.
5. gaia. Laneko arriskuen prebentzioa. Xedea. Eskubideak eta betebeharrak: laneko arriskuetatik babesteko eskubidea. Prebentzio-jardueraren printzipioak. Prebentzio-plana, arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza. Langileen prestakuntza.
6. gaia. Administrazio-antolamendua: administrazio-organoak. Kide anitzeko organoak.
7. gaia. Administrazio elektronikoa. Herritarrek zerbitzu publikoetara duten sarbide elektronikoa. Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa: egoitza elektronikoa eta Interneteko ataria, identifikazio-sistemak eta sinadura elektronikoa. Artxibo elektronikoa. Administrazio-espeditentea.
8. gaia. Pertsonen administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak. Artxibo eta erregistro publikoetara irispidea izateko eskubidea.
9. gaia. Administrazio-egintza: produkzioa, edukia, arrazoitzea eta forma. Administrazio-egintzaren efikazia. Administrazio-isiltasuna. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna.
10. gaia. Administrazio-prozedura: printzipio orokorrak. Interesdunak. Abstenitzea eta errekusatzeta.
11. gaia. Administrazio-prozeduraren faseak.
12. gaia. Egintzak berrikustea: administrazio-errekurtsoak, ofiziozko berrikuspina eta errebokatzea. Akats materialak zuzentzea.

II. zatia

13. gaia. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea: legearen xedea eta printzipioak, udalerrria eta gainerako toki-erakundeak, udal-eskumenak. I., II. eta III. tituluak (1etik 24ra artikulua)
14. gaia. Administrazio-prozedura (1). Jarduteko gaitasuna eta interesdunaren kontzeptua. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (3. artikulutik 8.era).
15. gaia. Administrazio-prozedura (2). Administrazio-prozeduran jarduteko arau orokorrak. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (13. artikulutik 33.era).
16. gaia. Administrazio-prozedura (3). Egintzen eraginkortasuna. Jakinarazpenak. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (37. artikulutik 46. artikulura eta 53. artikulua).

17. gaia. Administrazio-prozedura (4). Prozeduraren hasiera. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (54. artikulutik 69.era).

18. gaia. Laudioko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantza. Norgehiagoka-araubideko emakida-prozedura (9.etik 14.era) eta zuzeneko emakidaren prozedura (15-21 artikulua).

4. ERANSKINA

IRAKASLEEN OINARRI ESPEZIFIKOAK – ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENENKO PROZESUAK (IRAUPEN LUZEKO BEHIN-BEHINEKOTASUNA EGONKORTZEA)

Lehenengoa.— Iragarritako plazak

Sarbide libreko lehiaketa bidez irakasleen hiru plaza (3) hornitzeko deialdia egin da (A taldea, A-2 titulazio-azpitaldea), administrazio bereziko eskalakoak, azpieskala teknikokoak, A ordainsari-taldeari dagozkion ordainsariekin, Laudio Udalak 2022ko apirilaren 1eko ALHAO-n iragarritako enplegu publikoaren eskaintzaren barruan.

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen, Enplegu Publikoan Behin-behinekotasuna Murriztekoaren arabera egonkortze-prozesua aplikatuko da iragarritako plaza hornitzeko. Aipatutako legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrien arabera, onartu egiten da iraupen luze behin-behinekotasuna egonkortzeko ezohiko deialdia egitea, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren, Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onestekoaren 61.6 eta 61.7 artikuluei jarraikiz, betiere, lehiaketa-sistemaren bidez, eta 2016ko urtarrilaren 1az geroztik etenik gabe behin-behineko izaeraz okupatutako plazen kasurako. Behin baino ez da egingo ezohiko deialdi hori.

- Txanda librea: plaza 3, derrigorrezko 4. hizkuntza-eskakizun tekniko profesionalarekin. Karrerako funtzionario gisa lanpostuaren jabetza hartzen den unean hutsik dauden plazen arabera zehaztuko da zerbitzuak zer destinotan emango diren.

Bigarrena.— Betekizunak

Oinarririk orokorretan zehaztutako betekizunaz gain, izangaiak unibertsitateko diploma edo gradua eduki beharko dute, edo hori jaulkitzeko eskubideak ordainduak izan beharko dituzte.

Hirugarrena.— Azterketa egiteko eskubideak

Hautaprotetan izangai gisa izena eman nahi duten pertsonen azterketa-eskubidearen tasak ordaindu beharko dituzte, Laudio Udalean indarrean dauden ordenantza fiskalean jasotako baldintzekin bat.

Nolanahi ere, eskubideak aurkezteko epearen barruan egin beharko da azterketa-eskubideen ordainketa.

Laugarrena.— Instantziak

Hautatze-prozesuetan parte hartu nahi duten pertsonen udal-webgunean eskuragarri dagoen eskabide elektronikoa bete eta aurkeztu beharko dute (www.laudio.eus) edo Laudioko udaletxeko Herritarrentzako Arreta Zerbitzura joan, bertan bete eta aurkezteko. Horrez gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehazten diren lekuetan ere aurkeztu ahalko dira eskabideak.

20 laneguneko epea emango da eskabidea aurkezteko eta dagokion tasa ordaintzeko, deialdi honen iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

Halaber, hautatze-prozesuan parte hartzeak esan nahi du onartu egiten dela hautatze-prozesuaren edozein unetan Audio Udalean Lan Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuak egokitzat jotzen dituen azterketa edota kontrolak egin ahalko dituela, izangaiek eduki behar duten gaitasun funtzionala dutela egiaztatze aldera.

Bosgarrena.— Hautatze-prozesua

Sarbide libreko lehiaketaren bidez egingo da izangaien hautaketa (merituen balorazioa).

1. Lehiaketa fasea

Lehiaketa fasean, izangaiek alegatutako eta egiaztatutako merituen baloratuko dira. Merituen baremo honen arabera emango dira puntuak:

Oinarri hauetan adierazitakoaren arabera egingo da merituen balorazioa, eta, beraz, ez da bestelako meriturik kontuan hartuko.

1.1 Esperientzia profesionala

Kontuan hartuko den esperientzia izango da Estatuko Administrazio Orokorrean, autonomia erkidegoetako administrazioetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 3.1 artikuluan zehaztutako toki-administrazioerako erakundeetan emandakoa karrerako, bitarteko edo lan-legepeko funtzionario gisa. Esperientzia hori egiaztatzeko, "emandako zerbitzuen ziurtagiria" aurkeztu beharko da, administrazio publikoak jaulkia, zeinetan jasoko baitira eskaintako plazaren titulazio-talde berberetan, epaimahaiak eskaintako plazarekin bateragarritzat jotzen dituen eginkizun nahiz kategoriek eta edozein harreman juridikoren bidez emandako zerbitzuak, baina alde batera utzita zerbitzu zibilen edo merkataritza-zerbitzuen errentamendu-kontratuak, bekak nahiz prestakuntza-praktikak. Oinarri espezifiko hauen laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko den egunaren aurreko zerbitzu-aldiak baino ez dira kontuan hartuko.

Kasuan kasuko organo eskumendunak jaulkitako ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira emandako zerbitzuak, eta esanbidez adierazi beharko da zer lanpostutan eta zenbat denboraz eman diren. Ez dira kontuan hartuko lan-esperientziarekin erlazionatutako merituen baldin eta ez badituzte kontzeptu hauek esanbidez adierazten:

- Betetako lanpostuaren izendapena eta kategoria profesionala.

- Kontratazio aldien hasiera- eta amaiera-datak.

- Lanpostuko eginkizun nagusiak, baldin eta irizten bazaio kategoria adieraztea ez dela nahikoa lanpostua behar bezala deskribatzeko, edo alegatutako esperientzia ez dela erreferentziako lanpostukoarekiko behar bezain antzekoa.

Laudio Udalean eta haren organismo autonomoetan emandako zerbitzuak instantzian alegatu egin beharko dira, baina pertsona interesdunek ez dituzte egiaztatu beharko. Ofizioz zenbatuko dira zerbitzu horiek.

Gehienez ere, 80 puntu emango dira, honako baremo hauei jarraikiz:

- Esperientzia orokorra: esperientzia orokor gisa ulertuko da administrazio publikoetan, barme hartuta Laudioko Udal Euskaltegian, irakasle plazetan edo eginkizun parekagarriak dituzten A taldeko eta A2 azpitaldeko plazetan emandako zerbitzuak. Gehienez ere, 20,00 puntu lortu ahalko dira esperientzia orokorrarengatik, zerbitzu-egun bakoitzeko 0,009 puntu emanda.

- Esperientzia espezifikoa: esperientzia espezifiko gisa ulertuko da Laudioko Udal Euskaltegian irakasle plazetan edo eginkizun parekagarriak dituzten A taldeko eta A2 azpitaldeko plazetan emandako zerbitzuak. Gehienez ere, 60,00 puntu lortu ahalko dira esperientzia espezifikoarengatik, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera emandako zerbitzu-egun bakoitzeko 0,027 puntu zenbatuta.

Nolanahi ere, lanaldi partzialarekin edo lanaldi murriztuarekin zerbitzuan emandako aldiak lanaldi osokotzat zenbatuko dira.

1.2. Bestelako meritua

Bestelako merituegatik 20,00 puntu lortu ahalko dira gehienez, irizpide hauetako bat edo gehiago beteta:

1.2.1. Prestakuntza-ikastaroak

Jarraian azalduko diren prestakuntza- edota hobekuntza-ikastaroak egin izana egiaztatzeagatik, puntu kopuru hauek emango dira:

- Plazaren berezko eginkizunekin erlazionatutako ikastaroak: egiaztatutako ikastaro-ordu bakoitzeko 0,14 puntu emango da, gehienez ere, 20 eman arte.

Alegatzen diren tituluen ziurtagiritan adierazia egon beharko da ikastaroaren izena, data, non eman zen eta ordu kopurua.

Ikastaroan parte hartu izanaren ziurtagirian ez bada ikastaroak iraun dituen ordu kopurua jasotzen, ezin izango da balioztatu, behintzat, izangaiak ez badu ikastaroa antolatu duen erakundearen ziurtagiria aurkezten ikastaroaren iraupena egiaztatzeko.

1.2.2 Hizkuntzen ezagutza

Gaztelaniaz bestelako Europar Batasuneko hizkuntza ofizialen ezagutza baloratuko da, irizpide honen arabera:

- B-1 maila edo goragokoa: 5 puntu. alegatzen den hizkuntza bakoitzeko.

1.2.3. Informatika-ezagutzak

Meritu gisa baloratuko da informatika-ezagutzen mailaren egiaztapena, Informazioaren Gizarterako Euskadiko Planak KZ Gune zentroetan eskaintzen dituen moduluak eskuratuta, IT Txartela egiaztapen-sistemaren bidez, edo beste erakunde publikoek emandako egiaztapen baliokide baten bidez.

Laudio Udalak ofizioz eskatuko dizkio IT Txartelaren erakunde jaulkitzaileari izangaiek eskuratuak dituzten akreditazioen egiaztapenak.

Beste erakunde publikoren batek jaulkitako ziurtagiri baliokideren bat duten izangaiek kalifikazio-epaimahaiak zehaztuko duen epean aurkeztu beharko dute.

Nolanahi ere, meritua aurkezteko fasean alegatu beharko dira IT Txartelak edo ziurtagiri baliokideak.

2,5 puntu emango da ziurtagiri hauetako bakoitzeko, baina, gehienez ere, 10 puntu:

- Word 2010

- Word 2000

- Word XP
- Word 2003
- Word 2007
- Excel 2010
- Excel 2000
- Excel XP
- Excel 2003
- Excel 2007
- Access 2000
- Access XP
- Access 2003
- XP ofimatika
- 2003 ofimatika
- Access 2010
- PowerPoint XP
- PowerPoint 2003
- PowerPoint 2007
- PowerPoint 2010
- Office XP
- Internet oinarritzkoa
- Internet aurreratua
- Microsoft Outlook 2003
- Outlook 2010
- Outlook XP

Aplikazio baten erabilera-maila aurreratuari dagokion ziurtagiria izateak aplikazio beraren oinarritzko mailaren ziurtagiria baliogabetuko du.

Aplikazio baten azken bertsioaren egiaztagiriek aurreko bertsioenak baliogabetuko dituzte.

1.2.4 Eskatutakoa baino maila altuagoko titulazio akademikoa

Plazari dagozkion eta erakunde edo organismo hauetakoren batek jaulkitako titulazio akademikoak baino ez dira baloratuko:

- Administrazio publikoren bat edo horien menpeko organismo autonomoren bat.
- Administrazio eskumendunaren onespenez balio akademiko ofiziala duten tituluak jaulkitzen dituen ikastetxe publiko edo pribatuak. Nolanahi ere, titulu horien berezko esparru akademikoko gaiak baino ez dira aztertuko.
- Eskatzen diren titulazioei dagozkien elkargo profesional ofizialak, eta balorazioa euren esparru profesionalarekin erlazionatutako gaiei baino ez diete erreferentzia egingo.

Gehienez ere, 10 puntu emango dira horiengatik, irizpide hauen arabera:

- Plazak berezko dituen eginkizunekin erlazioa duen graduondoko titulua edo espezializazio-titulua izatea: 10 puntu.
- Plazak berezko dituen eginkizunekin erlazionatutako unibertsitateko master ez-ofizialen bat izatea (unibertsitatearen bateko berezko titulua edo antzekoa): 10 puntu.
- Plazak berezko dituen eginkizunekin erlazioa duen master titulua izatea: 10 puntu.

Ez dira kontuan hartuko egiaztatzen ez diren merituak. Merituak egiaztatzeko, kasuan kasuko titulazioaren jatorrizko agiriak, titulua jaulkitzeko eskubideen jatorrizko ordainagiria aurkeztu beharko da, edo agiri horien kopia konpultsatuak.

1.2.5. Emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza

Honela baloratuko dira emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza-ikastaroak: egiaztatutako ikastaro-ordu bakoitzeko 0,25 puntu emango da, gehienez ere, 10 eman arte.

Alegatzen diren tituluen ziurtagirietan adierazia egon beharko da ikastaroaren izena, data, non eman zen eta ordu kopurua.

Ikastaroan parte hartu izanaren ziurtagirian ez bada ikastaroak iraun dituen ordu kopurua jasotzen, ezin izango da balioztatu, behintzat, izangaiak ez badu ikastaroa antolatu duen erakundearen ziurtagiria aurkezten ikastaroaren iraupena egiaztatzeko.

1.2.6 B motako gidabaimena

B motako gidabaimena edukitzea nahitaezko betekizuna ez den postuetan, 5 puntu emango dira.

1.3. Puntuazioa

Lehiaketa-fasean lortu daitekeen puntuazio maximoa 100 puntukoa izango da.

Seigarrena.— Prozesuaren emaitza

Prozesuan lortutako puntuazio guztiak batuta kalkulatu da hautatze-prozesuaren azken kalifikazioa. Berdinketa gertatzen bada, oinarri orokorretan xedatutakoa aplikatu da.

Hautatze-prozesua amaitutakoan, epaimahaiak udaletxeko iragarkien taulan eta udal-webgunean argitaratuko ditu pertsonen behin-behineko kalifikazioak, puntuazio handiena lortu duenetik hasi eta txikiena lortu duenarekin amaituta, eta esanbidez adierazita hautatu diren pertsonak; pertsona hautatuen kopuruak ezingo du gainditu deialdian iragarritako plazen kopurua.

Interesdunek 10 laneguneko epea izango dute egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak formulatzeko, behin-behineko emaitzen zerrenda argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

Erreklamazioak aurkezten badira, horiek ebatzi ostean argitaratuko du epaimahaiak hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzen zerrenda.

Zazpigarrena.— Dokumentazioa aurkeztea

Hautatutako pertsonen 15 laneguneko epea izango dute oinarri orokorretan zehaztutako dokumentuak Laudioko udaletxeko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan aurkezteko, prozesuaren emaitzak argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Zortzigarrena.— Izendapena eta jabetza hartzea

Oinarri orokorretan xedatutakoarekin bat egingo dira Laudioko Udal Euskaltegiko karrerako funtzionarioen izendapenak.

Bederatzigarrena.— Aurkaratzeko bideak

Oinarri hauek nahieran errekurritu daitezke alkate-udalburuari berraztertze-errekurtsua aurkeztuta, hilabeteko epean, eta zuzenean administrazioarekiko auzi-bidera jotzeko aukera ere badago, bi hilabeteko epean. Bi epe horiek oinarriok ALHAO-n argitaratzen diren egunetik aurrera zenbatuko dira, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 112, 123 eta 124. artikuluetan nahiz uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzearen 46. artikuluan xedatutakoarekin bat.